

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAN, MUSIKA
ETA DANTZAN OINARRITUTAKO ESKU-
HARTZE BATEN ERAGINA IKASLEEN
GARAPEN INTEGRALEAN
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Alaña Urquijo, Alain.

ZUZENDARIA: Ealo Ochoa de Eribe, Asier.

2023

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honen marko teorikoan, gaur egun, musika eta dantza Lehen Hezkuntzan baztertutako alderdiak diren arren, ikasleen garapen integralean ekarpena egiten dutela ikusi da. Lan honen helburua, Lehen Hezkuntzako etapan dantzak eta musikak haurren garapen integralari dakartzkion onurak ikertzea eta aztertzea behaketan oinarritutako egindako proposamen didaktiko baten bidez da. Lana aurrera eramateko, eskolako 4A gelarekin lan egin da. Aukeraketa egiteko, egindako behaketa prozesua garrantzitsua izan da. Gainera, galdetegi desberdinak sortu dira emaitza desberdinak lortzeko. Hauek, irakasleak, ikasleak eta lan honen autoreak bete dituzte. Gero, lana burutzeko aurrera eramandako prozedura zehaztu da: unibertsitatean, gaiaren aukeraketa eta tutorearekin bilera egin da. Honetan, zer egin zehaztu, eta eskolan murgilduta, irakaslearen partez, proposamena aurrera eramateko baiezkoa jaso da. Gero, behaketa prozesua burutu, esku-hartzea planifikatu eta aurrera eraman eta galdetegiak erabilia, emaitzak eta ondorioak lortu dira. Prozeduran ikus daitekeen moduan, Lehen Hezkuntza graduko Practicum IIIrako praktikaldia erabilia, musikaz lagundutako dantza ardatz duen unitate didaktiko proposamen bat sortu da, Gorputz Hezkuntzako saioetan aurrera eraman dena. Ikasleen autoebaluazioetan, tutoreak betetako ebaluazio-irizpideen galdetegietan eta lanaren autorearen behaketan jasotako emaitzetan oinarrituta, proposatutako esku-hartzeak ikasleen garapen integralean ekarpen handia egiten duela erakusten dute. Azkenik, ondorio moduan, dantza eta musika modu aktiboan eta sistematikoan Lehen Hezkuntzan txertatzea gomendatzen da, haurrei haientzat ohikoa ez diren edukiekin esperimendatzeko eta diziplina horiek beren bizitzetara ekar diezazkieketen onurez gozatzeko aukera eskaintzen baitu.

Hitz gakoak: Musika, dantza, Lehen Hezkuntza, garapen integrala, onurak.

Resumen

En el marco teórico de este Trabajo Fin de Grado se ha observado que, si bien en la actualidad la música y la danza son aspectos excluidos en la Educación Primaria, contribuyen al desarrollo integral del alumnado. El objetivo de este trabajo es investigar y analizar los beneficios de la danza y la música en la etapa de Educación Primaria para el desarrollo integral de los niños y niñas a través de una propuesta didáctica basada en la observación. Para llevar a cabo el trabajo se ha trabajado con el aula 4A de la escuela. Para realizar la selección, el proceso de observación realizado ha sido importante. Además, se han creado diferentes cuestionarios para obtener diferentes resultados. Estos han sido cumplimentados por el profesor, los alumnos y el autor de este trabajo. A continuación, se detalla el procedimiento llevado a cabo para llevar a cabo el trabajo: en la universidad se ha realizado

la selección del tema y una reunión con el tutor. En este sentido, se ha definido qué hacer y se ha recibido el asentimiento por parte del profesor o profesora de cara a llevar adelante la propuesta. Posteriormente, se ha llevado a cabo el proceso de observación, se ha planificado y llevado a cabo la intervención y se han obtenido resultados y conclusiones a través de cuestionarios. Como se puede observar en el procedimiento, utilizando el periodo de prácticas para el Practicum III del grado de Educación Primaria, se ha creado una propuesta de unidad didáctica centrada en la danza acompañada de música, que se ha llevado a cabo en las sesiones de Educación Física. Basándose en las autoevaluaciones del alumnado, los cuestionarios de los criterios de evaluación cumplimentados por el tutor y los resultados obtenidos en la observación del autor del trabajo, demuestran que la intervención propuesta aporta mucho al desarrollo integral del alumnado. Finalmente, a modo de conclusión, se recomienda que la danza y la música se integren de forma activa y sistemática en la Educación Primaria, ya que ofrece a los niños y niñas la posibilidad de experimentar con contenidos poco habituales para ellos y disfrutar de los beneficios que estas disciplinas pueden aportar a sus vidas.

Palabras clave: Música, danza, Educación Primaria, desarrollo integral, beneficios.

Abstract

In the theoretical framework of this Final Degree Project, it has been observed that, although music and dance are currently excluded from Primary Education, they contribute to the holistic development of students. The aim of this work is to investigate and analyse the benefits of dance and music in Primary Education for the holistic development of children through a didactic proposal based on observation. In order to carry out the work, we worked with classroom 4A at the school. In order to make the selection, the observation process was important. In addition, different questionnaires were created to obtain different results. These were filled in by the teacher, the pupils and the author of this work. The procedure carried out to carry out the work is detailed below: at the university, the topic was selected and a meeting was held with the tutor. In this sense, what to do was defined and the agreement of the lecturer to carry out the proposal was received. Subsequently, the observation process was carried out, the intervention was planned and carried out, and results and conclusions were obtained through questionnaires. As can be seen in the procedure, using the Practicum III work experience period for the Primary Education degree, a proposal for a didactic unit centred on dance accompanied by music was created, which was carried out in the Physical Education sessions. Based on the pupils' self-assessments, the assessment criteria questionnaires completed by the tutor and the results obtained in the observation of the author of the work, it is shown that the proposed intervention contributes greatly to the pupils' all-round

development. Finally, by way of conclusion, it is recommended that dance and music be actively and systematically integrated into Primary Education, as it offers children the possibility of experimenting with content that is unusual for them and enjoying the benefits that these disciplines can bring to their lives.

Keywords: Music, dance, primary education, holistic development, benefits.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Justifikazioa	1
3. Marko Teorikoa	2
3.1. Zer da musika?	2
3.2. Zer da dantza?.....	3
3.3. Musika eta Dantzaren Arteko Lotura	3
3.4. Musika eta Dantza Lehen Hezkuntzan.....	4
3.4.1. <i>Musikak Espainian Izandako Bilakaera Historikoa</i>	4
3.5. Dantza eta Musikaren Onurak Lehen Hezkuntzan	6
3.5.1. <i>Garapen Kognitiboa</i>	6
3.5.2. <i>Garapen Psikomotorra</i>	7
3.5.3. <i>Garapen Emozionala</i>	8
3.5.4. <i>Garapen Soziala</i>	8
4. Metodoa	9
4.1. Helburuak	9
4.2. Parte Hartzaileak	10
4.3. Ebaluazio-tresnak	10
4.3.1. <i>Behaketa</i>	10
4.3.2. <i>Galdetegiak</i>	11
4.4. Prozedura	11
4.5. Esku-hartzea.....	12
4.5.1. <i>Ikas-egoera</i>	12
4.5.2. <i>Argudiaketa Kurrikularra</i>	12
4.5.3. <i>Jardueren Sekuentzia</i>	15
5. Emaitzak	19
5.1. Ikasleen emaitzak	19
5.2. Irakaslearen emaitzak	22
5.3. Lan honen autorearen emaitzak.....	24

6. Ondorioak	25
7. Mugak eta Hobekuntza Proposamenak	29
8. Bibliografia	31
9. Eranskinak	37
9.1. Hasierako Galdetegia	37
9.2. Erdiko Galdetegia	40
9.3. Amaierako Galdetegia.....	42

1. Sarrera

Urtetan zehar, musika eta dantza hezkuntza-sistemak baztertu dituen eduki blokeak izan dira. Azken boladan, hauen joera aldatuz joan da, bakoitzari merezi duen lekua aitortzen hasiz. Lanean agertuko diren hainbat autoreek aipatzen duten bezala, zenbait ikerketek frogatu dute musika eta dantza ondorio positiboak eragiten dituztela ikasle bakoitzaren garapen integralean. Lan honetan, hori frogatu nahi izan da, musika eta dantza ikasleentzat onuragarriak direla ikertuz.

Amaierako lanari dagokionez, lehendabizi marko teorikoan, musika, dantza eta garapen integralaren inguruan jakin beharrekoa ezagutzeko, hainbat autoreen aipamenak eta ideiak batzen dira. Honen ostean, lanaren helburu nagusia eta helburu espezifikoak aurkeztuko dira. Ondoren, lana betetzeko erabilitako metodoa azalduko da, parte hartzaileak, ebaluazio-tresnak eta erabilitako prozedura azalduz, eta, behaketan lortutako ondorioetan oinarritutako esku-hartze proposamen bat planteatuz eta aurrera eramanez. Segidan, landutakoaren arabera lortutako emaitzak azaldu eta lanean oinarritutako ondorioak aurkeztuko dira.

Laburbilduz, lan honen bidez, musikak eta dantzak eskolan duten presentzia ikertzearekin batera, musikak eta dantzak Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleengan suposatzen dituen onurak aztertuko dira, Real Decreto 157/2022, de 1 de marzo, por el que se establecen la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Primaria-ra egokitutako esku-hartze proposamen baten bidez.

2. Justifikazioa

XX. mendean, musika eta dantza hezkuntza-sistematik kanpo lantzen ziren edukiak ziren. XXI. mendean aldiz, joera aldatu da, eta gero eta gehiago dira musika-hezkuntza egokia lortzeko interesa duten irakasleak (Valencia, 2015).

Honekin batera, azken boladan, garapen integralaren kontzeptua garrantzitsua bilakatzen ari da irakasleen artean. Garapen integrala lantzean, modu bateratuan, garapen fisiko-motorra, garapen soziala, garapen emozionala eta garapen kognitiboa lantzen dira (Sigcha, 2016). Honen garrantzia goraiatuz, López et al.-entzat (2016), egungo hezkuntza sistemaren helburuetako bat ikasleen garapen integralean ekarpena egitea da. Dena den, errealitatean ez da hau gertatzen, eta garapen mota desberdinak ez dira kasu gehienetan batera lantzen, batzuk lantzean, beste batzuk baztertzeko baitira.

Musika eta dantzaren bidez garapen integralean ze motatako ekarpenak egiten diren ezagutzeko egiten da lan hau. Hau lortzeko, funtsezkoa den lehenengo gauza, musika eta dantzari hezkuntza-curriculumean behar duten espazioa aitortzea da. Honekin batera, arazo larria dago irakasleen formakuntzan. Eskoletan, dantza eta musikaren inguruan ezagutzak

dituzten irakasleen ehunekoa oso txikia da. Hori dela eta, eduki bloke horien presentzia oso txikia izateaz gain, aurrera eramaten diren jarduerak edo proposamenak ez dira kalitatezkoak izaten.

Musika, dantza eta garapen integrala lotzen duten gero eta azterlan gehiago egiten ari diren arren, garapen integrala aztertzeke musika eta dantza bateratzen dituzten ikerketa gutxi topatu dira. Bi elementuak erlazionatuta daudela jakinda (Meschini eta Payri, 2016), Gorputz Hezkuntzako saioetan musika eta dantzaren lanketa bateratua aurrera eramateko aukera egokia ikusi da proposamena.

Azkenik, Gradu Amaierako Lanaren gaiaren aukeraketan arrazoi pertsonalak ere garrantzitsuak izan dira. Aldez aurretik ezagutzen ez nuen kontzeptua zen garapen integralarena, baina, aurrean, graduaren ikasitakoak honen inguruan gehiago aztertzerantz bultzatu nau. Gainera, aurreko praktikaldietan, musikak eta dantzak jasotzen duten trataera eskasaren inguruan hausnartu nuen, eta horregatik, bien arteko konbinazioa egitea aukera ona zela uste da, are gehiago, mota honetako ekarpenik ez direla egin ikusita. Hori dela eta, gogo handiak nituen musika eta dantzaren inguruko proposamen bat aurrera eramateko, eta honek garapen integralean egiten dituen ekarpenak ikusteko.

3. Marko Teorikoa

3.1. Zer da musika?

Musika definitze aldera, hainbat adierazpen desberdin egin dira historian zehar. Lathamek, *Diccionario enciclopédico de la música* liburuan (2017), soinua eta musika bereizi nahian, musika soinu antolatu gisa definitzen du, non giza adimenak, entretenitzeko eta entzuteko soinu-ereduak sortzen parte hartzen duen. Gonzálezek (2012), musika arte bat da, soinu desberdinak entzuteko eta ulertzeko erabiltzen dena. Quintilianok, ordea, berak idatzitako *Sobre la música* liburuan (2016), musika arte bezala definitzen du ere, gure eguneroko bizitzan baliogarria dena. Hori defendatzeko, musikaren materia ahotsaren eta gorputzaren mugimenduaren batura dela esaten du. Horri gehitzen dio musika zientzia bat dela, non ezagutza ziurra eta hutsezina den. Bestetik, Euskaltzaindiak (2023), musika, "hotsak arau jakinen arabera konbinatzeko artea; antolaketa horren arabera emaitza" bezala definitzen du.

Musikaren inguruan beste hainbat motako definizio ugari eman dira. Adibidez, Insuastik eta Llangak (2019) musika osasunarekin erlazionatu dute, musika ondo pasatzeko erabilgarria den heinean, osasuna hobetzeko eta estimulazio iturri bezala identifikatuz. Bestetik, musika, entretenimendu-, ikaskuntza- eta ongizate-iturri garrantzitsua da gure bizitzetan, baita gure burmuinerako estimulu indartsua ere (Hazard et al., 2017).

Musikaren definizioa alde batera utziz, Zarateren esanetan (2019), musikaren helburua hartzailearengan esperientzia bat eragitea izango da, non sentimenduek, emozioek, bizitako egoerek, pentsamenduek edo ideiek garrantzia izango duten. Honetarako, musikan baliabide ugari konbina daitezkeela jakin behar da. Adibidez, soinuak edo konpasak (Latham, 2017). Honen harira, Quintilianok dio (2016), musika, melodiaren, erritmoaren eta ahoskeraren baturak osatzen duela.

3.2. Zer da dantza?

Musikaren kasuan gertatzen den bezala, dantza modu desberdinetan ulertzen da. Ez dago arte bakoitza azaltzeko modu bakar eta ziurrik. Gainera, dantza definitzeko modu asko daude, bakoitzak modu ezberdinean ulertzen baitu (Dallal, 2020).

Dantza definitzen hasteko, dantza gorputzarekin eta mugimenduarekin erlazionatzen dituzten definizio ugari daude. Euskaltzaindiak (2023) gaur egun, dantza “gorputz higidura arin eta kateatuen multzoa, batez ere doinu baten arabera egiten dena” bezala definitzen du. Bestetik, *Los elementos de la danza* liburuan, dantza modu honetan definitzen da: “Dantzaren artea, gorputza menderatzean eta espazioarekin lotura kontzientea edukitzean datza” (Dallal, 2020, 20 or.). Gainera, Monasterioren ustez (2017), dantza, gorputzaren, gure identitate pertsonalaren garapenaren eta mugimenduaren arteko harremana biltzen duen praktika eta ariketa fisikoa da, arreta berebiziko garrantzia duen begizta interaktibo batean.

Angostok eta Conesak (2017), dantza onurekin erlazionatzean, dantza pertsona guztientzat jarduera aberasgarria dela aipatzen dute, bereziki, haur eta gazteentzat. Dantza sormenezko elementu handi eta, gizakiaren adierazpen artistikorako modu garrantzitsuenetako bat dela ere esaten dute.

3.3. Musika eta Dantzaren Arteko Lotura

Azkenengo urteetan, asko izan dira musika eta dantzaren inguruan ikerketak egin dituztenak. Hauetako askok musika eta dantzaren arteko loturari erreparatu diote. Jauseten esanetan (2016) musika eta mugimendua oso lotuta daude, eta, hori dela eta, oso zaila da bi edukiak modu isolatuan tratatzea. Adibide gisa, musika lasaia entzutean, mugimenduak planifikatzen dituen garun-eremua aktibatzen dela, nahiz eta planifikatutako mugimendu hauek ez adierazi gehitzen du.

Meschinik eta Payrik egindako ikerketa batean (2016), musika eta dantza erlazionatuta dauden ala ez egiaztatu nahi izan zuten. Hainbat jarduera aurrera eraman ostean, musikak espazioaren eta dantzaren alderdi guztietan eragin esanguratsua duela ondorioztatu zuten. Honen harira, eta nahiz eta dantza eta musika arte desberdinak izan, musika eta dantza gorputz-hezkuntzan berebiziko erlazioa eta garrantzia dute (Núñez eta Quiñonez, 2020), bi

arten kasuetan, gorputza, mugimendua, erritmoa eta oreka bihurtzen baitira hauen ardatz nagusiak.

Musika entzutean estimuluak jasotzen ditugu, eta pertsonok irudimena garatzen hasten gara, dantzan hasiz (Meschinik eta Payri, 2016). Honekin lotuta, entzumen-eremuen eta eremu-motorren artean dauden konexioak aztertu dira, ondorioztatuz, aipatutako konexio hauek direla, musikaren erritmoa gorputz atal desberdinekin jarraitzeko ardura dutenak (Jauset, 2016). Gainera, musika estiloak espazioan eta dantzan eragiten dituen hainbat aldaketa jaso dituzte Meschinik eta Payrik (2016). Alde batetik, entzuten den musikaren arabera, espazioa modu desberdinean antolatzen dugula eta dantza osatzen duten mugimenduak norabide eta era desberdinetan egiten ditugula ikusi dute. Bigarrenik, entzuten dugun musika motaren arabera, dantzatzean mantentzen den publikoarekiko harremana aldakorra dela aztertu dute. Eta azkenik, musikaren arabera, dantzatzean betetzen diren mugimenduak, erabilitako abiadura eta energia aldatzen direla ere egiaztatu dute.

3.4. Musika eta Dantza Lehen Hezkuntzan

Bai musikak bai dantzak, aldaketa nabariak izan dituzte historian zehar. Bi kasuetan, aldaketak ez dira berdinak izan, nahiz eta aldaketa gehienak urte berdinetan eman diren, hezkuntza legeen arabera. Orain, urteetan zehar bakoitzak izandako bilakaera azalduko da.

3.4.1. Musikak Espainian Izandako Bilakaera Historikoa

Atal honetan, XX. mendean zehar, musikak eskola-munduan izan duen eboluzioa hartuko da kontuan. Hau betetzeko *La música en las enseñanzas de régimen general en España y su evolución en el siglo XX y comienzos del XXI* artikulua hartu da kontuan (Oriol, 2017), beste artikulua batzuetako ideiak txertatuz. Aldaketa gehienak lege desberdinen ezarpenen arabera izan dira. 1857. urtean ezarritako Moyano Legea ez zen 1945. urtera arte aldatu. Hezkuntza arloan izandako aldaketa guztiak momentuko dekretuen arabera izan ziren. Garai horretan, kontuan izanda tartean gerra zibila egon zela, hezkuntza aldaketa-prozesua gelditu zen. Kontuan hartzekoa da, ia 100 urte horietan, musika abesti herrikoia eta aberkoien bidez bakarrik lantzen zela. Europan, eskola aktiboaren mugimendu pedagogikoa hasi zen, non hezkuntza musikalak eskoletan finkatu eta zabaltzen hasi zen (Iruñi, 2021). Espainian aldiz, 1945ean, erregimen frankistak Lehen Hezkuntza Erreformatzeko Legea ezarri zuen. Lege berri honetan, musika-hezkuntza izaera artistikoko ikasgai osagarritzat hartu zen, kantikoen bidez lantzen zena.

Urte batzuk geroago, 1970ean, *Ley General de Educación* (LGE hemendik aurrera) legea inposatu zen. Lege honek hezkuntza munduan berrikuntza prozesua ekarri zuen. Aurretik, musika adierazpen dinamikoaren arloaren parte zen, Gorputz Hezkuntza (GH hemendik aurrera) eta kirolekin batera. LGE legarekin, musika, irakaskuntza orokorrean sartu

zen, nahitaez landu beharreko arloa bihurtuz. Garai honetan, parte-hartzeak garrantzia hartu zuen heinean, musikalizazioa, kantua, instrumentalizazioa edo dantza modu desberdinetan aplikatzen hasi ziren (Iruñ, 2021). Hala eta guztiz ere, eta musika-hezkuntzak curriculumean garrantzi handiagoa hartu arren, erregulazio juridikorik jaso ez zuenez, eta irakasleen esperientzia txikia zenez, musika ez zen eskola gehienetan landu.

1990ean, *Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo* (LOGSE legea) ezarri zen. Legea ezarri zen momentuan, hezkuntza musikala curriculumean txertatzen da (Iruñ, 2021). Lege honetan, musika arte-irakaskuntzen blokea osatzen zuen, plastika eta dramatizazioarekin batera. Garai honetan, musikaren trataera hobetzen zuen aldaketa esanguratsu bat gertatu zen: unibertsitatean musika-hezkuntzako maisuaren espezialitatea sortu zen. Gaur egun, musika hezkuntza ez dago soilik musika egitera eta ikastera bideratuta. Mota desberdinetako edukiak lantzerantz bideratuta dago (Iruñ, 2021).

3.4.2. Dantzak Espainian Izandako Bilakaera Historikoa

Dantzaren kasuan, izandako bilakaera historikoa aztertzeko, Chavero et al.-en (2018) *La Danza y la Expresión corporal como asignatura dentro del currículum de educación* lanean oinarritu da. Gerra zibileko garaian, erregimen frankistak *Emakumeen Saila* izeneko erakundea sortu zuen, GHren barruan emakumea hezteko sortutako erakundea zena. Bertan, emakumeek abilezia eta gaitasun desberdinak lortzen eta garatzen zituzten Espainiako dantza folkloriko desberdinak ikasiz, eta izaera nazionalista barneratuz. Bertan, dantza ugari ikasi behar zituzten. Hainbeste ziren ikasi beharrekoak, non 50eko hamarkadan dantza-kontserbatorio ofizialak sortu ziren, pixkanaka, dantza desberdinak lantzeko erabiltzen zirenak.

Hemendik aurrerako hamarkadetan, 1990. urtera arte, dantzak ez zituen aldaketa garrantzitsurik jaso. Urte honetan, LOGSE legearen ezarpenarekin, arteek, non dantza bertan kokatzen zen, hainbat onura lortu zituzten. Hauek arautzeaz gain, dantzari eskola barruan zein eskolatik kanpo zuen balioa eta interesa onartzen zitzaion. Hori dela eta, LOGSE legea ez zela dantzarako hezkuntza-erreforma bat bakarrik izan argi izan behar da, baizik eta, dantza-irakaskuntza aitortzearen eta dantza musikako eta arte dramatikoko irakaskuntzekin parekatzearen jatorria izan zen (Arteaga et al., 2019). Gainera, lege honekin, irakasgai orokorretan eta espezifikoen banatu ziren, dantzak izaera espezifikoa jasoz. Horrek, dantza eskola-eremutik kanpoko zentro baimenduetan lantzeko beharra jasotzea eragin zuen. Bestalde, lege honen ondorioz, dantzaren goi-mailako irakaskuntzak unibertsitate-ikasketen balio eta garrantzia jaso zutela aipatzekoa da.

Urte batzuk geroago, 2006an, *Ley Orgánica de Educación* (LOE legea) legearekin, dantza eskolan sartu zen GH irakasgaiaren eduki bihurtuz, adibidez, arte dramatikoarekin edo kirolekin batera. Real Decreto 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la Educación Primaria-n agertzen zen bezala, GHko irakasgaiaren barruan, jarduera fisiko-artistiko adierazkorrek multzoaren barne, “Mugimenduen konposizioa estimulu erritmiko eta musikaletatik abiatuta. Dantza eta koreografia sinpleak egitea” (51. or.) edukia zegoen. Dena den, eta dantzak historian zehar paper aldakorra izan duela ikusita, dantzak oraindik ez du paper garrantzitsurik jaso hezkuntza-munduan. Honekin lotuta, López et al.-ek, 2020an egindako ikerketa batean, dantza GHan esplizituki aipatzen zuten eduki berezien kopurua kontuan hartuta, Espainiako autonomia-erkidegoen % 38,8an bakarrik dantzaren presentzia handia dela curriculum-elementuetan ikusi zuten. Gainera, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoak ez duela dantzari buruzko aipamenik egin GHren arloko edukietan.

3.5. Dantza eta Musikaren Onurak Lehen Hezkuntzan

Dantza eta musikaren lanketak hainbat onura suposatzen ditu ikasleen bizitzetan. Arte-hezkuntzak beste arlo batzuekin diziplinartekotasuna aplikatzean, emaitza oso onak ematen ditu (Cremades et al., 2011). Honekin batera, Zarateren esanetan (2019), musikak onura asko eta garrantzitsuak eragiten ditu esparru desberdinetan, hala nola, intelektualean, psikologikoan, kognitiboan eta sormenean. Gehitze aldera, Velecelak (2019), irakasle askok hezkuntza-musikalak suposatzen dituen onura ez-musikalengatik musika erabiltzen dutela aipatzen du: gizarte-, mugimendu-, afektibitate-, sormen- eta ezagutza-garapena, adibidez.

Aurrekoan oinarrituta, aipatu daiteke, musika eta dantza ikasle txikiekin erabiltzea, haurren ikaskuntzarako tresnarik erabilgarrienetarikoa dela, horien lanketak, garapen integralarekin lotura estura baitu (Sigcha, 2016). Jarraian, dantzak eta musikak, garapen integrala osatzen duten garapen mota ezberdinetan eragiten dituzten onurak azalduko dira. Honekin murgildu baino lehen, garapen integrala definitzeko beharra dago. Albánen eta Velaren (2021) esanetan, ikasleen garapen integrala sustatzen duen hezkuntzak aukera ematen die hurrei beren irudimena, sormena, alderdi fisiko-motorrak, psikologikoak, kognitiboak, afektiboak eta sozialak garatzeko, esperientzietatik pertsonaletatik abiatuz eta ikas-giro egokian egonda.

3.5.1. Garapen Kognitiboa

Lehenik eta behin, garrantzitsua da musika arloan emaitza positiboak eragiteaz gain, musika emaitza positiboak lortzen dituela, orokorrean, arlo kognitibo guztietan jakitea (Benítez et al., 2017). Velecelak (2019), ikasleak musikarekin duen interakzioari esker, haurrak bere eskema mentalak antolatzen dituela aipatzen du.

Musikak funtzio kognitiboak garatzen laguntzen du. Ikerlari asko dira garapen kognitiboan musikaren emaitza positiboak adierazi dituztenak. Canok (2017) azkenengo urteetan musikarekin harremana izan duten pertsonen entzumen eta irakurketa probetan emaitza hobekak lortzen dituztela frogatu dela adierazten du. Bere esanetan ere, musikaren bidez epe labur eta luzeko memoriari buruzko informazioa erabiltzeko trebetasun handiagoa lortzen da, irakurtzeko trebetasun handiagoa eta hizketarako trebetasun hobekak eskuratuz. Bestetik, Gonzalesek bere ikerketetan adierazten duen moduan (2017), musikak arreta-gaitasuna garatzeaz gain, kontzentrazioa eta memoria estimulatzen, eta ordenaren eta analisiaren zentzuak garatzen ditu. Bestalde, dantza eta musikak, oroimenaren garapenean eta pentsamendu logiko-matematikokoan laguntzen dute, portaera sozial desberdinetan ekarpena egiten dute, eta, horren bidez, adimen-koefiziente handiagoa lortzen da (Benítez et al., 2017).

Dantzaren kasuan ere, garapen kognitiboan emaitza positiboak ikusi dira. Orozcok azaldu duen bezala (2018), kasu batzuetan, dantza gaixotasun desberdinak tratatzeko erabiltzeaz gain, dantzaren bidez emaitza positiboak lortu dira memoria-, kontzentrazio-, arreta- edo hizketa-prozesuetan. Baita musikak hizkuntzaren arloan duen eragina ezagutzea ere garrantzitsua da, hizkuntza haurren arteko harremanetan baliabide nagusia delako. Ahozko hizkuntzaren eta musika-hizkuntzaren arteko harremana estua da, bien helburua komunikatzea izanez (Velecela, 2019). Azkenik, musikaren eraginaren ostean, garunean aldaketak eragin direla, zenbait trebetasun kognitibo hobetuz, frogatu da (Cano, 2017). Errendimendu akademikoan musika onuragarria da, ikaskuntza-prozesua errazten baitu (Gonzales, 2017).

3.5.2. Garapen Psikomotorra

Garapen psikomotorrari dagokionez, musikak, dantzak eta arlo psikomotorrak lotura estua dutela ezinbestekoa da jakitea. Velecelarentzat (2019), mugimendua eta musika bat doaz, eta bata ezin da garatu bestea gabe. Beste era batean esanda, ikaslea musikarekin lehenengo kontaktua izatean, aldi berean, mugimenduarekiko harremana ezagutzen du, musika, trebetasun motor berriak garatzeko tresna gisa erabiliz.

Aurrekoarekin jarraituz, Belmontek (2022), musikak eta gorputz-hezkuntzak helburu eta eduki komun ugari dituztela egiaztatzen du, hala nola erritmoa, jarrera-ohiturak edo arnasketa, mugimenaren garapenari mesede egiten diotenak. Honekin lotuta, musikaren bidez, gaitasun psikomotor asko indartu daitezke, hala nola begien eta eskuen arteko koordinazioa, norberaren gorputzaren ezagutza, arnasketa edo espazioaren eta denboraren pertzepzioa (Velecela, 2019).

Dantzaren kasuan, Moreanorentzat (2018) oso garrantzitsua da dantza mugimenduan oinarritzen den artea dela aipatzea. Bestetik, dantzak balio pedagogiko handia duela aipatzen du, adin goiztiarretan motrizitatea garatzeko aukera ematen baitu. Dantza musika, espazioa eta gorputza batzen dituen adierazpen artistikoa dela kontuan hartuta, dantza diziplina egokia da haurren garapen motorra sustatzeko (Allison, et al., 2020). Honekin lotuta, Abellánek (2021), Lehen Hezkuntzan (LH hemendik aurrera), dantzek abilezia psikomotor mota guztiak eta gorputz-eskemaren garapena hobetzen dutela azaltzen du, dantza egiten zuten ikasleen eta egiten ez zutenen arteko desberdintasunak aztertuz. Gainera, dantza eskolako curriculumean agertzen diren hainbat eduki behar bezala eskuratzeko funtsezkoa dela aipatzen du.

3.5.3. Garapen Emozionala

Adimen emozionala, gure emozioak ezagutzeko eta hauek behar bezala kudeatzen jakiteko trebetasuna da (Cabedo eta Campayo, 2016).

Musika-jarduerak, ikasleek beren emozioak ezagutzeko, izena jartzeko eta emozioak erregulatzeko eta partekatzeko baliogarriak dira (Bermell et al., 2018). Honen harira, Velecelak (2019), musikak, sentimenduak eta emozioak ezagutzeko aukera emateaz gain, adierazpen askea ahalbidetzeko funtzioa betetzen duela aipatzen du, haur baten hasierako etapan funtsezkoa dena. Cabedok eta Campayok (2016) musikak, pertsonaren gogo-aldartean eta portaeran eragina duela esaten dute. Honekin jarraituz, musika tresna bikaina dela adierazten dute, ahozko hitzaren bidez eman ezin daitekeen moduan, adierazpen emozionala errazten baitu. Hori dela eta, musikak funtzio sozial eta emozional handia betetzen duela argi geratu da (Bermell et al., 2018).

Bestalde, dantzaren bidez garapen emozionalean ere hainbat onura lor daitezke. Aragón et al-ek (2016) azaltzen duten bezala, dantzan aritzean, sentitzen ditugun emozio mota guztiak adierazteko gai gara. Emozio horiek gure baitan ditugu, eta dantzatzeak horiek azaleratzen laguntzen digu. Horri gehitzen diote gai honen trataeran irakasleek zeregin garrantzitsua dutela, izan ere, ikasleen emozioak eroso eta aske sentitzen diren dantzekin konektatzea lortu behar dute, horrela ikasleen garapen emozional optimoa lortuz.

3.5.4. Garapen Soziala

Levinek adierazten duen moduan (2016, apud Cordova, 2020), ikastetxea umeen sozializazioaren eragile nagusia da. Bere esanetan ere, sozializazioa subjektu bat talde sozial batean sartzeko, integartzeko eta irauteko dituen moduak azaltzen dituen prozesua da. Hezkuntza-munduaren barne, musika eta dantzaren arloak ikasleen sozializazio-prozesuan garrantzitsuak dira.

Reinok (2015), musika eta dantza protagonistak diren saioetan, giro egokia sortzen dela gelan adierazten du, eta giro honek harremanak indartzeko eta ikasleen jarrera aktiboa sustatzeko aukera ematen du. Bestetik, Larreak (2018) musikaren bidez, ikasleen arteko harremanak eta interakzio sozialak sustatzen direla aipatzen du, hein handi batean, talde bizitza indartuz eta ikasle bakoitza taldearen partaide sentituz. Klase barruan, ikasleak libre eta eroso sentitzea eragiten du, eta modu honetan, beste kideekin mantentzen dituzten harremanak naturalagoak eta hurbilagoak izaten dira (Reino, 2015). Gainera, Larrearen esanetan (2018), dantza eta musikaren bidezko jardueren bidez, askotan baztertuta dagoen ikasle bat konfiantzaz aritu daiteke, klasean protagonismoa hartuz eta taldean integratuz. Honekin lotuta, Jarillok (2014) azaltzen duen bezala, musika eta dantza pertsonen arteko harremanak, akatsen onarpena, tolerantzia, eta orokorrean, bizikidetzaren positiboa, sustatzeko baliogarriak dira.

4. Metodoa

4.1. Helburuak

Gradu Amaierako Lan honek hainbat helburu ditu. Helburu orokorra, musikak eta dantzak ikasleen garapen integralean ekarpenik egiten duen aztertzea da, eskolako errealitatera egokitutako musikarekin eta dantzarekin lotutako proposamen didaktiko baten bidez, ikasleek zein irakasleek gai hauek lantzearen abantailak eta onurak ezagu ditzaten.

Lan honetan, helburu orokorrean oinarritutako beste zenbait helburu espezifiko ere badaude:

1. Musikak eta dantzak eskolako errealitatean jasotzen duen trataera ikertzea, behaketa prozesuaren bidez, aldatu edo hobetu beharreko jarrerari aldaketa proposamena bilatzeko.
2. Diseinatutako esku-hartze proposamena errealitatean betetzea, planifikatutako saioak aurrera eramanez, esku-hartzeak garapen integrala osatzen duten arlo bakoitzean nolako eragina duen ezagutzeko.
3. Ikasleek musika eta dantzaren inguruko esku-hartze berri bati zer nolako erantzuna ematen dioten aztertzea, ikasleek, irakasleak eta nik betetako galdetegietan lortutako emaitzen bidez, esku-hartze proposamena ikasleen garapen integralerako onuragarria izan den jakiteko.

4.2. Parte Hartzaileak

Proposatutako sekuentzia didaktikoa Amurrioko ikastetxe batean aurrera eramán da. Industrializazio garaitik hona, Amurrioko biztanleriak gora egin du, eta gaur egun, 10.300 pertsona inguru bizi dira herrian. Hortaz, herriko hezkuntza eskaintza nahiko altua da, lau eskola egonda. Aukeratutako ikastetxean, orokorrean ikasleen maila sozioekonomikoa erdi-
goi mailakoa da.

Ikastetxean, Haur Hezkuntzako (HH hemendik aurrera), Lehen Hezkuntzako (LH hemendik aurrera) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) etapak eskaintzen dira. Ikastetxe garrantzitsua da herrian, eta 600 ikasle baino gehiago matrikulatuta daude bertan. Ikastolak D eredia ezarrita du zabaldu zenetik. Hori dela eta, bertako ikasle zein irakasleek euskaraz aritzen dira. Azkenengo urteetan, HHko metodologia aldaketaren ondorioz, eta matrikulazio eskaintzaren ondorioz, gela gehiago sortu dituzte. LHri dagokionez, 2. mailan 3 gela dauden arren, beste mailetan 2 gela daude. Guztira, 13 gela.

Esku-hartzea martxan jartzeko aukera desberdinak behatu eta planteatu diren arren, 4. A gelarekin aurrera eramatea erabaki da. Guztira gelan, 23 ikasle dira, 14 neska eta 9 mutil. Gelako ikas-giroa positiboa da, ikasleen arteko harremana oso ona eta talde kohesio handia dute. Garapen psikomotorrari dagokionez, talde trebea da orokorrean, eta emozionalki ez dituzte arazo handirik izaten emozioak kudeatzeko. Gainera, taldearen inplikazioa eta erronka berriekiko erakusten duten motibazioa eta interesa oso altuak dira.

4.3. Ebaluazio-tresnak

Lana burutzeko, mota desberdinetako tresnak erabili dira. Lehenik, behaketak. Horiek aztertu nahi izan denaren inguruko informazioa jasotzeko, eta esku-hartzea antolatzeke erabili dira. Eta bigarrenik, galdetegiak, esku-hartzea bete aurretiko, eta hori bete osteko emaitzak alderatzeko erabili direnak.

4.3.1. Behaketa

Behaketen bidez lortu nahi izan dena, informazioa hartzea eta biltzea da. Erabili den behaketa mota parte-hartzailea izan da. Honetarako, ikastetxean egindako praktikaldia erabili da. Aukera ona izan da osotasunean klasearen dinamika, ikasle taldearen ezaugarriak eta irakaslearen jarduteke moduak aztertzeke. Praktikaldiak taldearekin erlazio estua izatea, eta konfiantzazko giroan behaketa betetzea eragin du. Hortaz, espero ziren baino alderdi gehiago behatu dira. Horietako asko ikasleen ingurukoak izan dira. Dena den, ahalik eta behaketa objektiboena egitea izan da helburua.

Esku-hartzean murgildu baino alde zurreko planifikazioa bete behar izan da. Aurretiko planifikazioa ahalik eta behaketa osatuen eta egokien betetzeke funtsezkoa izan da. Nire esku-hartzea modu egokian bete ahal izateke, ikasle taldeak izan behar dituen hainbat

ezaugarri zerrendatu dira. Gainera, zer, nola eta zertarako behatuko den planifikatu behar izan da.

Dantzan eta musikan oinarritutako ikerketa egin denez, Gorputz Hezkuntzako saioetan musikak eta dantzak jasotzen duten trataera behatu da. Alderdi ugari aztertu izan dira. Hala nola, irakaslearen inplikazioa, irakaslearen jarrera eta joera dantza eta musikarekiko, ikasleen erlazioa horiekiko.

Behaketa-prozesua 3 astez egin da. Hasierakoa, lehen esan bezala, taldearen erabakia hartzeko erabili da. Aldiz, gainontzeko bi asteak, taldean oinarritutako behaketak egiteko. Bestalde, oinarrizko modu batean, ikastolako egoera dantza eta musikarekiko aztertu izan da, modu batez, ikastolan hauen egoera zein den jakiteko erabili dena.

4.3.2. Galdetegiak

Ikasleek betetako galdetegiak, emaitza kualitatibo zein kuantitatiboak eskuratzeko erabili dira. Ikasleei bi aldiz banatu zaizkie galdetegiak: bata esku-hartzearen hasierako saioan, eta bestea amaierakoan. Bi alditan, galdera batzuk izan ezik, galdetegiak berdinak izan dira (ikus 1. eta 3. eranskinak). Horrela egitea aukera ona izan da ikasleak asteetan zehar zer eta ze neurritan ikasi duten ezagutzeko.

Gainera, argudiaketa kurrikularreko taulan zerrendatzen diren ebaluazio-irizpideak galdetegi bihurtu dira. Horiek, ikastolako irakasleak eta nik erantzun ditugu. Modu honetan, jasotako erantzunekin, beste motatako emaitzak jaso dira.

4.4. Prozedura

Gradu Amaierako Lanaren hautaketa egin ostean, egin den lehenengo gauza unibertsitateko tutorearekin kontaktuan jartzea izan da. Honekin elkartu, eta aukera desberdinen artean proposamen didaktikoa sortzearen ideia adostu da.

Ikastetxean egindako praktikaldia erabiliz, ikastolako Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin hitz egiten da lana bertan burutu daitekeen jakiteko. Ikastetxeak baiezkoa eman, eta esku-hartzea prestatzeari ekin zaio. Lehenengo eginkizuna, lanaren helburuak zehaztea izan da. Helburuak bitan banatu dira, lanaren helburu orokorra eta zenbait helburu espezifiko.

Honen ostean, behaketaren fasera pasatu da. Fase hori 3 asteetako iraupena izan du. Hasierako astea, esku-hartzea zein ikasle taldearekin aurrera eramango den erabakitzeke erabili da. Hori eginda, hurrengo bi asteak, ikasle taldea eta irakaslea behatzeko erabili dira. Honekin amaitzean, behatutakoa aztertuta, dantza eta musikaren trataera ikastolan gabezia batzuk dituela ikusi da.

Horiei erantzuna emateko helburua izanda, esku-hartzearen diseinua betetzera pasatu da. Honetan, zer eta nola landu nahi izan den zehaztu, eta saioen planifikazioa egin da. Planifikazioarekin amaitu, eta sortutako diseinua Gorputz hezkuntzako irakasleari erakutsi zaio. Berarekin batu ostean, eta adostasunetara ailegatu ostean, proposatutakoa martxan jartzen da. Saioak aurrera egin ahala, galdetegiak banatzen dira, eta hauetan eskuratutako emaitzak eta erantzunak jasotzen dira amaieran emaitza desberdinak atera ahal izateko.

Ondoren, irakasleari ebaluazio-irizpideak pasatu zaizkio, galdetegi moduan erantzun desberdinak batzeko. Irakaslearen eta ikasleen emaitzetan oinarrituta, lan honen autoreak bere emaitzak eta ondorio desberdinak proposatu ditu. Honekin amaitzean, ikusitako mugak eta hobekuntza proposamenak identifikatu eta bateratu dira.

4.5. Esku-hartzea

Aurreko behaketak egin eta gero, ikasle taldean hainbat gabezia eta hutsune daudela ikusi da. Honen aurrean, dantza eta musikaren inguruko proposamen didaktikoa planteatzen da. Mota askotariko jardueraz osatuta dago. Proposatutako saioak, dantzak eta musikak ikasleengan izan ahal dituzten onurak ezagutzeko helburuarekin bete dira. Gorputz Hezkuntzako eskola orduetan landu dira, mugimendua sustatzen duen sekuentzia didaktikoaren bidez. Esku-hartzea, aurretik aipatutako talde esperimentalean aurrera eramango da. Hori dela eta, jarduerak taldearen ezaugarrietara moldatuta daude.

4.5.1. Ikas-egoera

Ikasleak gelan daudela, Gorputz Hezkuntzako saioan eztabaida sortu da ikasle batzuen artean. Batzuk materiala duten betiko jolas tradizionalen alde daude, eta besteak, aldiz, materialik gabeko jolasen alde. Halako batean, eztabaidatzen ez dagoen ikasle batek berari jolas berriak ezagutzea gustatuko litzaiokeela aipatu du. Une honetan, irakasleak otsailaren 28an dantzariaren nazioarteko eguna dela gogoratu du.

Irakasleak, egun hori ailegatzeko 3 aste falta direla ikusita, ondorengo galdera luzatu du gelan: oso garbi ikus daiteke jolasetan adituak zaretela, baina nortzuk zarete dantza-lehiaketa batean lehiatzeko gai?

Hortaz, sekuentzia didaktiko bat sortzea erabaki da, non azken ekoizpena, ikasleak talde desberdinetan banatuta daudela, dantza koreografiak sortzea izango den.

4.5.2. Argudiaketa Kurrikularra

(Ikus taula).

Argudiaketa Kurrikularra

Funtsezko kompetentziak	Deskribatzaile operatiboak	Arloa	Kompetentzia espezifikoa	Ebaluazio - irizpideak	Oinarrizko jakintzak
Hizkuntza – komunikaziorako kompetentzia	HKK5	Arte hezkuntza	1.	1.1	Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak.
				3.1	Entzumen-hezkuntza: soinua eta bere nolakotasunak: ikus- eta entzumen identifikazioa. Entzumena eta barne-memoria. Zarata-, soinu- eta isiltasun-egoerak identifikatzeko estrategiak.
3.	3.2		Instrumentu-, ahots- eta gorputz-praktika: esperimentazioa, miaketa, interpretazioa eta inprobisazio librea soinu- eta adierazpen-aukeretatik abiatuta.		
	4.		4.1	Gorputza eta bere aukera motorrak eta sortzaileak, komunikatzeko, dibertitzeko eta sentimenduak adierazteko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki emanaldia.	
4.2			Oinarrizko drama- eta dantza-teknikak. Oinarrizko adierazpen-hizkuntzak. Oinarrizko ekintza performatiboak. Inprobisazio gidatua.		
4.3					
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa	KPSII1	Heziketa fisikoa	1.	1.1	Gaitasun fisikoak jolasaren eta jokoaren arlotik.
	KPSII3				Gorputz-eskema: kontrol tonikoa eta jarrerakoa eta independentzia segmentarioa, egoera motorretan. Lateralitatearen definizioa. Koordinazio dinamiko orokorra eta segmentarioa.
KPSII5	Sormen motorra: ekintza motorra barne- eta kanpo-estimuluen arabera aldatu eta egokitu.				
	Norberaren gaitasunak eta mugak.				
EK1	Esparru honen berezko askotariko jardun motorrak				
EK3	Ekintza printzipioak eta arrakasta lortzeko gakoak kooperazio-egoeretan: taldeko ekintzak lankideekin koordinatu eta kateatu, sinkronizatu, algoritmo motorrak, gorputza kontrolatu, erabakiak adostasunez hartu...				
	Jokoan bertan proposatzen den erronka bati edo sortzen den arazo bati konponbidea emateko erantzun originalak.				

Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako kompetentzia	KAKK2 KAKK3 KAKK4

		1.4	Harrerako, inklusioko, laguntzako eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.
		4.1	Taldearekiko konpromisoa eta elkartasuna.
	4.	4.2	Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentsazioak, sentimenduak, emozioak eta ideia sinpleak komunikatu.
			Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako erritmo- eta musika-jardun artistikoak eta adierazpenekoak.
			Norberaren espazioa eta hurbileko espazioa, erritmoa eta denboraren antolaketa.
			Mugimenduaren eta haren osagaien kalitateak: energia (indartsua-ahula), espazioa (tamaina handia edo txikia, aurrera, atzera, alhora, desplazamenduan, irekia/itxia, gainean/azpian...) eta denbora (azkarra-makala, iraupenak, esaldiak, isiluneak, hasiera/amaiera).
			Norberaren eta besteen produkzioak. Gainerakoen begirada onartu.
	7.	7.1	Ekoizpen artistikoak, espresiboak eta akrobatikoak behatzeko irizpideak: zailtasuna, aniztasuna, jarraipena.
		7.2	Dantzetako oinarrizko pausuak.
			Gizarte-osasuna: jarduera fisikoa, ohitura eta alternatiba osasungarri gisa, aisialdi modu kaltegarrien aurrean. Entzute aktiboa eta negoziazio-estrategiak testuinguru motorretako gatazkak ebazteko. Egoera motorretan bizikidetzaren kontrako jokabideak, diskriminatzaileak edo sexistak baztertu.
			Jokoaren arauak eta segurtasun-arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.
			Materiala zaindu eta prestatu, garatu beharreko jokoaren arabera
			Proiektu motorren plangintza eta autoerregulazioa: planifikatutakoa gauzatzeko oinarrizko mekanismoak.
			Bizikidetzaren aurkako jokabideak: identifikazio-estrategiak eta ondorio negatiboak.

4.5.3. Jardueren Sekuentzia

A. Hasierako fasea

JARDUERAREN IZENA	IRAKASLEAK JAKIN BEHARREKO JARDUERAREN AZALPENA	IKASLEEK IRAKASLEAREN PARTEZ JASOKO DUTEN AZALPENA
1. Bikoteen jolasa	<p>Dantzarekin, erritmoarekin eta musikarekin lehenengo kontaktua izango dute ikasleek. Bikoteka jarriko dira, nahi duten moduan. Espero da konfiantza dutenen artean jartzea jarduera modu egokian betetzeko.</p> <p>3 ariketa desberdin egingo dituzte, baina dinamika berdinarekin: lehenengo batek dantzatuko du eta besteak kopiatuko du, eta ondoren rol aldaketa. Lehenengo ariketan dantzan modu librean arituko dira, nahi duten moduan. Bigarrenean, bata bestearen aurrean jarrita, ispiluaren ariketa egingo dute. Batek dantzatzen duen bitartean, bestea ispilu bat balitz bezala, mugimendu berdinak beteko ditu. Eta hirugarrena, itzalaren aldaera.</p> <p>Gimnasiotik zehar mugituko dira musikaren erritmora dantzatu, birak emanez... Atzean dagoenak (itzala) aurrekoak egiten dituen pausu berdinak egingo ditu.</p>	<p>Bikoteka jarri behar duzue, nahi duzuen pertsonarekin. Bikoteka zaudetela, batek dantzatuko du eta besteak hau kopiatuko du. Nik esatean, rol aldaketa egingo duzue. 3 jarduera desberdin izango dira, baina dinamika berdinarekin: dantza arrunta, ispilua, non ispiluak izan behar duzuen (mugimenduak alde berdina egin), eta itzala, non bere atzetik joan behar zareten.</p>
2. Puxika ez erortzea	<p>Bikote berdinak mantenduta, eskutik hartuko dira, eta musikaren erritmora dantzatzen duten bitartean, puxika bat izango dute, lurrera erori ezin dena. Helburua musikaren erritmoa jarraitzea eta mugimenduak koordinatzea izango da. Aldaera gisa, dantza egin dezakete, baina eskuak haien artean hartu gabe.</p>	<p>Bikotearekin eskua eman, eta musikaren erritmoa jarraituta dantzatzen duzuen bitartean, saiatu behar duzue puxikak lurra ez ukitzea.</p>
3. Argazkiak osatuz	<p>Honetarako, sortuta dauden 3 bikote elkartuko dira 6 kideetako taldeak osatuz.</p> <p>Seikoteka daudela, ikasle bakoitzak zenbaki bat izango du (1etik 6ra). Musika jarriko da eta bakoitzak nahi duen moduan dantzatuko du (ez dute elkarrekin joan behar). Dantzatzen duten bitartean, irakasleak pixkanaka zenbakiak esango ditu (1, 2, 3, 4, 5, eta 6).</p> <p>Oihukatzen den lehenengo zenbakia duen ikaslea geldirik geratuko da, zeozer eginez. Ondoren, beste zenbaki guztiak esanez joango da irakaslea. Denak, hasierako zenbakiaren parean geratu beharko dute geldirik. Modu honetan, amaieran 6 kideak geldirik eta ondoan daudela,</p>	<p>Hiru bikote elkar zaitzete, eta seikotearen kide bakoitzari zenbaki bat jarri, 1etik 6ra. Musika entzutean, gimnasiotik dantzatu behar duzue. Zuen zenbakia entzutean, geldirik geratu behar zarete zuen taldekideekin, 6ak geldirik egon arte. Saiatu behar zarete pixkanaka-pixkanaka, irudi bat osatzen.</p>

	irudi bat osatu dutela espero da. Beste taldeek zer sortu duten asmatu beharko dute. Irudimena eta erritmoa lantzeko jarduera da.	
--	---	--

B. Garapen fasea

JARDUERAREN IZENA	IRAKASLEAK JAKIN BEHARREKO JARDUERAREN AZALPENA	IKASLEEK IRAKASLEAREN PARTEZ JASOKO DUTEN AZALPENA
4. Aulkien jolasa baina uztailekin	<p>Jolas honen bi aldaera desberdin egingo dira. Lehenengoan, uztailak zirkulu bat osatuz egongo dira. Ikasleak zirkulari birak emango dizkiote musikaren erritmoa jarraituz. Musika gelditzean, uztailen barruan sartu beharko dira. Uztailak kenduko dira, baina ez dira eliminaziorik egongo. Orduan, erronka kooperatibo moduan, ikasleak saiaturiko dira denak gero eta uztai gutxiagoetan sartzen.</p> <p>Bigarren aldaeran, uztailak gimnasiotik zehar sakabanatuta egongo dira. Musikaren erritmora dantzaturiko dute, eta musika gelditzean uztai baten barruan sartzen saiaturiko dira. Uztai batean sartzen ez dena kanporaturiko da. Uztailak kenduko dira 1 bakarrik geratu arte.</p>	<p>Uztailak sortzen duten zirkulura birak eman behar dizkiozue musika gelditu arte. Musika gelditzean denak uztailen barruan sartuko zarete. Uztailak kenduko dira, baina eliminaziorik ez dira egongo.</p> <p>Bigarren aldaeran, uztailak gimnasiotik sakabanatuta egongo dira. Musika gelditzean, uztail batean sartuko zarete. Baten batek uztailekin gabe geratzen bada, kaleratuta egongo da.</p>
5. Erritmo desberdineko zirkuluak	<p>Ikasleak 2 edo 3 taldeetan banaturiko dira, eta talde bakoitzak zirkulu bat osatuko du. Jarduera honen helburua erritmo desberdinak jarraitzea izango da.</p> <p>Honetarako, ikasleak (kide batetik hasita) norabide batean txaloak egingo dituzte, bakoitza bere unea heltzen denean txalotuz. Gero eta azkarrago, motelago... egin dezakete. Gainera, norabide aldaketak ere egin ahal dira. Beste aldaera moduan, txaloak norabide batean, eta bestean saltoak egin ahal dituzte...</p>	<p>Zirkuluan zaudetela, hainbat eginkizun egin beharko dituzue erritmoa lantzeko. Lehenengo aldian, txalo bat bidaliko da eskuinera, eta bakoitzari bere txanda ailegatzean txalotuko du. Gero txaloea eskuinera eta salto ezkerera. Zailtasun maila handituko da, beraz arreta mantentzea ezinbestekoa da.</p>
6. Adituen dinamika	<p>Irakasleak ikasleak 4 talde desberdinetan banaturiko ditu. Taldeetan daudela, zenbakiak jarri beharko dituzte (1, 2, 3 eta 4). Gero, talde desberdinetako zenbaki bera duten guztiak elkartuko dira, 4 talde berri osatuz.</p> <p>Talde bakoitzean, 4 fitxa egongo dira, aerobic-eko pausuak izango direnak. Ikasleek 4 pausu horiek ikasten dituztenean, hasierako taldeetara bueltaturiko dira, gainontzekoei</p>	<p>Lau taldeetan banaturita zaudetela, zuen artean zenbakiak jarri itzazue (1etik 4ra). Zenbaki berriak jarrita dituzuela, zenbaki bereko kide guztiak elkartuko zarete 4 talde berri osatuz.</p> <p>Talde bakoitzean, Aerobic-eko 4 pausu izango dituzue, ikasi behar dituzuenak. Ikasi dituzuenean, zuen hasierako taldeetara bueltako zarete. Bertan, ikasi dituzuen 4</p>

	ikasitako pausuak irakasteko, besteek ikasitako pausuak ikas dezaten. Beraz, 16 pausu ezagutuko dituzte.	pausuak besteei irakatsi beharko dizkiozue, eta besteek ikasitako pausuak ikasi. Guztira, 16 pausu ikasiko dituzue.
7. Dantza	Aerobic-eko 16 pausuak izanda, taldeek koreografia bat sortu beharko dute, irakasleak jarritako musikaren erritmoa jarraitu behar duena (<i>Oh Carol - 140 BPM</i>). Koreografia bakoitzak 6 pausu gutxienez izan beharko ditu, eta ikasle bakoitzak ikasitako pausu bat (gutxienez) sartu beharko dute.	Taldean zaudetela, eta Aerobic-eko 16 pausu ezagutzen dituzuela, gutxienez, 6 pausutako koreografia bat sortu beharko duzue. Bakoitzak ikasitako pausu bat txertatu behar duzue gutxienez.
8. Orkestra zuzendaria	Ikasleak zirkulu handi bat osatuko dute. Ikasle bat zirkulu honetatik kanpo joango da, eta une batez, klasetik aterako da. Ikaslea kalean dagoen bitartean, zirkuluan jarraitzen dutenek ikasle bat hautatu beharko dute, orkestra zuzendaria izango dena. Honek, gorputza erabilita nahi dituen soinuak edo mugimenduak egingo ditu, eta besteek pertsona hau jarraitu beharko dute. Gero, kalean dagoen zirkulu erdira joango da eta orkestra zuzendaria nor den harrapatzen saiatu beharko da.	Zirkuluan zaudetela, zuetako bat kalera joango da une batez. Gainontzekoak, bitartean, zuen artean orkestra zuzendari bat aukeratu duzue. Berak markatuko du dena: zer egin, nola... Gero, kanpoan dagoena, zirkuluaren erdira sartuko da, eta asmatu beharko du orkestra zuzendaria nor den.
9. Gorputz perkusioa	Jarduera honen amaieran, ikasleak musika jarraituz (<i>Ridiculous – Kyrie Irving</i>) gorputz perkusio koreografia bat jarraitu beharko dute. Hau lortzeko, irakasleak pixkanaka, pausu desberdinak azalduko ditu, eta ikasleek errepikatu beharko dituzte.	Zirkulu handi bat osatuko dugu, eta gorputz perkusiozko hiru pausu ikasiko dituzue nik (irakasleak) egiten dudana jarraituz. Pausuak ikastea, musika jarriko da eta abestiaren erritmora joan beharko duzue pausuak jarraituz.
10. Non zaude?	Ikasleek bi zirkulu osatuko dituzte bata bestaren barruan egongo dena. Kokatzen diren posizioaren arabera, bikote bat izango dute. Irakasleak musika jarriko du eta bi zirkuluak, norabide desberdinetan, dantzatuko dute. Musika gelditzean, ahalik eta azkarren hasieran sortutako bikoteak aurkitu beharko dira. Jarduera honetan kanporaketak sartu ahal dira.	Bi zirkulu osatuko dituzue, bata bestaren barruan egongo dena. Zuen kokapenaren arabera, bikoteak sortuko dituzue (kanpoan eta barruan dauden bi pertsona elkartuko zarete). Musika jarriko da eta bi norabide desberdinetan (barruak ezkerrean eta kanpokoak eskuinera) dantzatu beharko duzue. Musika gelditzean, zuen hasierako bikotea ahalik eta azkarren aurkitu behar duzue.
11. Jarrai dezagun dantzan	Sortu diren bikoteak mantenduta, musikaren arabera dantzatu beharko dute. Pausu desberdinak erritmo desberdinetan sortzea da helburua. Gero bikoteak hirukote bihurtuko dira, gero laukote... Taldekatzeak irakasleak erabakiko ditu. Horrela 6 kideetako taldeak sortzen diren arte.	Bikoteak mantenduta, musikaren erritmoa jarraituz, bikotea dantzatu beharko duzue. Gero hirukotea, launaka... Irakasleak agintzen duen zenbakiaren arabera.

	Ikusiko da nola antolatzen diren ikasleak haien artean dantzatzeko, pausuak sortzeko, erritmoa jarraitzeko gai diren ala ez...	
12. Koreografiatzen	Aurreko ariketan sortutako seikoteek koreografia txiki desberdinak sortu beharko dituzte. Aurreko jardueran entzun den abestiren bat hautatu, erritmoa nolakoa zen gogoratu eta pausuak sortu eta abestira egokitu beharko dituzte. Amaierako fasera pasatu aurreko azkenengo jarduera izango da.	Seikoteak mantenduta, aurreko jardueran entzundako abesti bat gogoratu, eta musika entzun gabe, erritmoa gogoratzen saiatu eta koreografia bat sortu beharko duzue.

C. Amaierako fasea

JARDUERAREN IZENA	IRAKASLEAK JAKIN BEHARREKO JARDUERAREN AZALPENA	IKASLEEK IRAKASLEAREN PARTEZ JASOKO DUTEN AZALPENA
13. Dantzatu eta elkartu	Jarduera hau, azkenengo erronkari begira, taldeak sortzeko erabiliko da. Musika jarrita dagoen bitartean, ikasleak dantzan arituko dira. Irakasleak zenbaki bat esango du ozenean eta zenbaki horren arabera elkartuko dira ikasleak. 7 edo 8 kideetako taldeak sortzea da asmoa (taldearen arabera). Horregatik, irakasleak 7 edo 8 esango du, jarduerari amaiera emanez, eta hurrengo jarduerarako taldeak sortuz.	Musika jarriko da, eta irakasleak ezer esaten ez duen bitartean, dantzan arituko zarete. Noizbehinka, irakasleak zenbaki bat oihukatuko du, eta entzuten duzuen zenbakiaren arabera elkartu beharko duzue lehenbailehen.
14. Dantza prestatzen	Taldean daudela, 2 - 3 minutuko koreografia bat sortu beharko dute, hurrengo saioan aurkeztu beharko dutena. Haiek erabakiko dute dena. Erabiliko duten abestia, pausuak... Irakasleak material desberdinak eskainiko dizkie haien koreografian sartu dezaketena. Koreografiatan, figurak egin ahal dituzte, istorioak kontatu... nahi dutena.	Aurreko taldekatze bat erabilita, azkenengo erronkako koreografia sortu beharko duzue. Zuek erabakiko duzue ze abesti erabili, ze pausu sortu etab. Materiala erabiltzeko aukera ere duzue.
15. Praktikatzeko uneak	Ikasleek erabakiak hartu eta gero, sortu nahi duten koreografia praktikatzeko, aldaketak planteatzeko... denbora izango dute.	Erabakiak hartu ostean, eta gehienbat abestia zein izango den erabaki ostean, koreografia sortzeari eta hau praktikatzeari ekingo diozue.
16. Libre	Azkenengo saioan, taldeka entseatzen hasi aurretik, berotzeko, ikasleak gimnasiotik zehar mugitzen, dantzatzen... egongo dira.	Taldeka elkartu baino lehen, espaziotik mugitu eta dantza ezazue.
17. Taldeen dantzak	Sortutako koreografiak entseatzeko denbora izango dute. Denbora pasatzean, taldeka sortutako dantzak aurkeztuko dituzte.	Azkenengo entseguak egiteko unea. Minutu batzuk pasatzean aurkezpenak hasiko dira.
18. Amaierako hausnarketa eta ebaluazioa	Dantzak aurkeztu ostean, irakasleak eta ikasleak batera eseriko dira, eta 6 saioen inguruan hitz egingo dute. Hausnartzeko balioko du, hobekuntza proposamenak jasotzeko... Ebaluazio gisa erabiliko da azkenengo tarte hau. Gainera, azkenengo	Esku-hartzeari amaiera emateko, borobil batean eseriko gara. Denon artean hitz egingo dugu 6 saioen inguruan: zer iruditri zaigu, zer sentitu dugun, zer ikasi dugun, hobekuntzak... Gero amaieran galdetegi bat beharko duzue, hasieran zenekitena eta amaieran dakizuen

	galdetegi bat bete beharko dute esku hartzearen aurretik zekitena eta proposatutako saioen ostean dakitena alderatzeko.	alderatzeko, eta ikasi duzuenaren inguruan hausnarketa egiteko.
--	---	---

5. Emaitzak


Ondoren, esku-hartzea aurrera eraman osteko lortutako emaitzak aipatzen dira. Emaitzak hainbat atal desberdinetan banatuta daude. Lehenak, ikasleek betetako galdetegietatik eskuratutako emaitzak dira. Ondoren, ikastolako irakaslearen eskutik jasotako emaitzak. Eta azkenik, nik bildutakoak.

5.1. Ikasleen emaitzak

Ikasleen emaitzak biltzeko, galdetegiak erabili dira. Horiek lortzeko, hasierako eta amaierako saioan, ikasleei galdetegiak banatu zaizkie. Bi kasuetan, galdetegia berdina izan da. Emaitzak lortzeko, klasean 23 ikasle diren arren, hasierako saioan ez dute denek parte hartu. Hortaz, 21 ikasleen galdetegiak batu dira, 13 neska eta 8 mutilenak.

1. Irudia.

Dantza eta musika erlazionatuta daudela uste duzu?




Grafiko honen bidez, galdetegietan agertzen den lehenengo galderaren erantzunak ikus daitezke. Dantza eta musika erlazionatuta daudela uste duzu? Galdera erantzuteko 5 aukera zituzten ikasleak, 1etik (gutxi) 5era (asko) arteko zenbakiak. Hasierako saioan, ikasle askok uste zutela dantza eta musika haien artean ez zezudela neurri handi batean erlazionatuta ikus daiteke. 21 ikasleetatik, soilik 13k 5 zenbakiarekin erantzun zuten galdera honi. Gainontzeko 6k 4arekin eta beste bi pertsonak 1arekin eta 3arekin.

Aldiz, esku-hartzearen amaierako saioan jasotako erantzunak oso desberdinak izan dira. Neurri handi batean, ikasle gehienek iritziz aldatu dute, eta gehienen tendentzia gorakoa izan da. Ez dira erantzun baxurik batu, eta 21 pertsonetatik 19k 5eko erantzuna eman dute. Nabarmen ikusi da, saioak aurrera egin ahala haien usteak aldatu direla, eta dantza eta musikaren arteko erlazioa era nahiko garbian ikusi dutela.

Bestalde, aztertu nahi izan den beste puntu garrantzitsu bat, musika eta dantzaren inguruko esku-hartzeak ikasleen garapen integralean ekarpena egin duen ala ez izan da. Haien erantzunak jasotzeko, bigarren galdera bat luzatu zaie.

2. Irudia.

Zein arlotan uste duzu musika eta dantza eragina dutela?



Ikusten den moduan, aukeran lau erantzun izan dituzte, garapen integrala osatzen duten lau arlo desberdinekin. Ikasleek erantzun gisa aukera posible guztiak jarri ahal izan dituzte. Hasieran, ez zekiten arlo bakoitza zer zen eta hauek ezagutzeko azalpenak jaso zituzten.

Ikusten denez, gehienek, hasieran, esku-hartzea arlo emozionalarekin eta fisiko-motorrarekin gehienbat erlazionatuta egongo zela uste zuten. Amaieran, arlo guztiek gora egin dutela ikusi da, eta ikasle askok ikusi dutela dantza eta musika haien bizitzetan arlo askotan eragina izan dezaketela. Aipatzekoa da, gorakada gehien jaso duen arloa fisiko-motorra izan dela. Askok ez zuten uste dantzaren bidez hainbeste mugituko zirenik, eta jolas eta dinamika desberdinak burutu ostean, espero zutena baino gehiago mugitu direla egiaztatu dute.


Hirugarren eta laugarren galderetan, haintzat musika eta dantza zertarako den baliogarria galdetu zaie. Aukera dezente izan dituzte erantzuteko, eta hasierakoak eta amaierakoak alderatuta, emaitza aipagarri ugari sortu dira. Ikasleen ehuneko handienak

(% 95,2a), lehenengo momentutik, bai dantza eta bai musika disfrutatzeko edo kirola egiteko erabilgarria zela uste zuen.

Aldiz, lehenengo galdetegian, ikasleen % 28,6ak musika lagunekin giro egokian egotekoa baliogarria zela erantzun zuen. Ehuneko honek gorakada handia jaso du amaieran, hasieran jasotako erantzunen bikoitza baino gehiago jasoz (% 66,6a). Bestetik, dantzaren bidez koordinazioa landu daitekeela erdia baino gutxiagok uste zutela bakarrik (% 42,9) aipagarria da ere. Esku-hartzearen amaieran guztiz aldatu da hau, eta azkenean ikasleen % 85,8ak, hau da, bikoitzak, dantza koordinazioa lantzeko aukera aproposa dela uste du. Gainera, bai musikaren eta bai dantzaren kasuan, pentsatzeko edo hausnartzeko baliogarriak direla ez zuen erantzun kopuru handirik jaso. Amaieran, ikasleen herenak iritziz aldatu du, % 33,3a jasoz.

3. Irudia

Zertarako uste duzu direla baliogarriak musika eta dantza zure bizitzan?




Ikusten denez, zertarako uste duzu direla baliogarriak musika eta dantza zure bizitzan? galderak erantzun desberdinak jaso izan ditu bi galdetegietan. Grafikoan ikus daitekeen moduan, aukera guztiek bat izan ezik, erantzun gehiago jaso dituzte amaierako saioan lehenengoan baino. Gora egin ez duen erantzuna “sentitzen ditudan emozioak ezagutzeko” aukera izan da, bi kasuetan 12 erantzun jasoz. Dena den, bi galdetegien artean aukeraketa desberdintasun gehiago jaso duen aztergaia “emozioak adierazteko” izenekoa izan da. Aipatutako bi erantzunak arlo emozionalarekin erlazionatutakoak diren arren, ikus daiteke emozio desberdinak ezagutzen zituztela, baina, amaieran, hasieran baino erraztasun izan dituztela hauek adierazteko.

Bestetik, emaitzetan aztertu daiteke erantzun gutxien jaso dituen arloa arlo kognitiboa izan dela. Aldiz, gehien jaso dituen fisiko-motorra. Emaitza hauek, bigarren grafikoa lortutako datuekin bat datoz. Hortaz, argi geratzen da ikasleentzat dantza eta musika eragin gehiago duela arlo fisiko-motorrean besteetan baino gehiago.

Seigarren galdera desberdina izan da bi galdetegiaren. Hasierakoan, zer espero zuten ikastea erantzun behar zuten, eta amaierakoan aldiz, ikasitako eduki batzuk aipatu. Hasieran jasotako erantzunak ikusita, gehienek dantza eta koreografia berriak ikasi (% 71,4a), erritmoa eta koordinazioa bezalako edukiak zer ziren ezagutu eta hauek garatu (% 61,9a), eta gainontzeko ikasleekin harremanetan aritu nahi zuten (% 61,9a). Amaieran, zer ikasi duten erantzutean, hasieran aipatu ziren edukien lanketaren aurreikuspena gainditu da, eduki horiek ikasi izanaren erantzun kopuruak handitu baitira. Gehienek ikasi dituzte koreografia eta pausu berriak (% 85,7), koordinazioa garatu dute (% 66,6) eta gainontzeko ikasleekin erlazionatzeko modu desberdinak aipatu dituzte (% 66,6).

4. Irudia.

Aurreko saioak baliogarriak izan zaizkizu?



Azkenengo grafiko honetan, ikasleentzat esku-hartzea baliogarria izan dela ikus daiteke. 1, 2 eta 3 aukerak erantzunik jaso ez duten bitartean, 4 eta 5 aukerak bai. Ikasle taldearen ehuneko handienarentzat, hau da, ikasleen % 61,9arentzat, esku-hartzea oso baliagarria izan da. Gainontzeko % 38,1ari baliagarria.

5.2. Irakaslearen emaitzak

Irakaslearen emaitzak batzeko, irakaslearekin esku-hartzea egin osteko egun batean hitz egin da. Bere emaitzak jasotzeko, argudiaketa kurrikularreko atalean agertzen den taulan zenbakitzen diren ebaluazio-irizpideak aintzat hartzen dira. Ez dira ebaluazio-irizpideen

moldaketarik egin, eta, irakasleak aipatutakoan oinarrituta, hainbat emaitza aipagarri lortzen dira (ikus 4. eranskina).

Hasteko, mota honetako esku-hartze baten beharra zegoela ikastolan aipatzen du. Honen harira, ikasleekin landu ez diren hainbat gaitasun lantzearen beharra sumatzen zuela (koordinazioa edo espazio eta denboraren egituraketa) gehitzen du, eta proposamen hau egokia izan dela horretarako. Gainera, mota honetako esku-hartze bat planifikatzea zaila dela esaten du, kasu honetan, zailtasun guztiak gainditu direla goraipatuz.

Ebaluazio-irizpideei erreparatuz, taldean arazo gutxi egoten diren arren, aurrera eramandako saioetan, ez direla errespetu faltarik ezta arazorik egon ikusi du. Ikasle guztien jarreraren aldaketa nabaria ikusi du, hasierako egunetik amaierako egunera arte. Gainera, ikasleak modu aktiboan aritu direla aipatzen du. Honen inguruan, hau da irakasleak aipatutakoa. “Errespetua guztiaren gainetik egon da beti, ikasle guztiak modu aktiboan parte hartuz.” Honekin jarraituz, ikasleak elkarlanean aritu direla esaten du, askotan ohituta ez dauden pertsonekin lanean arituz, guztien artean errespetuz hitz eginez eta ikasleen arteko komunikazioa sustatuz. Berak planifikatutako saio askotan, ikasle batzuen parte hartzea ez da batere altua, eta dinamikatik at geratzen dira. Dena den, esku-hartze honetan ikasle guztien inplikazioa eta interesa altua izan dela azaltzen du. Hortaz, arlo sozialean, esku-hartzeak egindako ekarpena handia izan dela, behin baino gehiagotan, adierazten du. Bere esanetan, “Taldekako erronkak bete dituztenean, denek parte hartu dute erronka sortze prozesuan. Gainera, denen iritzia eta ideiak kontuan hartu dituzte, une oro errespetua mantenduz eta haien artean komunikazioa bermatuz.”

Bestetik, proposatutako jarduera gehienak ikasleentzat berriak izan direla esaten du. Honekin, guztien jarrera positiboa izatea lortu da. Aipatzen duen moduan, bere saio askotan, ikasle batzuk emozioak kudeatzeko zailtasunak izaten dituzte. Izan ere, lehia duten jolasetara aritzen dira. Esku-hartze honen kasuan, jarduera gehienak soziomotorrak baino, lehiarik gabekoak izan dira. Oso aproposak iruditu zaizkio, ikasleek emozioak kudeatzeko gai izan direlako. Hau defendatzeko, irakasleak ondorengoa aipatzen du: “Ikasleek haien egoera emozionalak kudeatu dituzte, bai eta besteenak identifikatu, haien arteko gatazka saihesteko.”

Bestalde, ikasleen garapen psikomotorrean ikusitako ekarpena azpimarratzen du, ikasleek egoera eta jarduera desberdinen eskaeretara modu egokian egokitu direla aipatuz: “Hainbat koreografia mota desberdin sortu dituztenez, gorputzaren inplikazioa eskatzen zuten hainbat baliabide modu egokian erabili dituzte, gorputz adierazpena eta erritmo mota desberdinak konbinatuz adibidez.” Irakaslea zalantzan zegoen ikasleak jarduera batzuk egiteko gai izango ziren ala ez, baina, pixkanaka, gaitasun eta oinarritzko trebetasun

psikomotorrak garatu dituztela ikusten du. Honen harira, esku-hartzea amaitu ostean, ikasle taldea psikomotorri trebeagoa dela uste du: “Ikasleek jarrera positiboa eduki dute une oro, jarduera fisikoa aisialdirako modu osasungarri baten moduan onartuz, denbora atsegina edukita eta haien eguneroko bizitzan modu hobekoan moldatzeko trebetasunak eta gaitasunak garatuz.”

Gainera, koreografia eta dinamika askotarikoak egin dituzten arren, guztietara modu egokian moldatu direla aipatzen du. Bere esanetan, ikasleak gai izan dira jardueren arabera eskakizun desberdinetara egokitzeko. Hau defendatzeko, hau da bere adierazpena: “Erakusketa teknika desberdinak erabiliz (espertoen dinamika, adibidez) modu gidatuan ikasi dute ikasleek, koreografia izango zen azken emaitza bat lortzeko.” Honengatik, arlo kognitiboa garatu dutela ere uste du. Honi gehitzen dio, ikasleek gauza berriak ikasi ahala, ikasitakoa praktikan jartzeko gai izan direla, haien ikaskuntza-prozesuan ekarpena eginez. Irakaslearen esanetan, “Ikasleek dena modu egokian bete dute eta landutakoa etorkizunean erabilgarria izango zaie. Hau lortzeko, proiektu motor desberdinak bete dituzte eta aurrera eramandako proiektuak aztertu eta baloratu dituzte”.

Aipatutako guztiagatik, esku-hartzea aproposa iruditzen zaio. Argi ikusi du ikasleen garapen integralean egindako ekarpena, eta gai izan da arlo desberdinetan eskuratu dutena bereizteko. Ikasleen jarrera eta proposamenaren planifikazioa goraiatzen ditu: “Ikasleak talde bakoitzean egonda konpromisoa eduki dute, jarrera egokia mantenduta eta planifikatutako kooperazio egoeren eskaera desberdinei erantzuteko ekintza desberdinak kateatuz.” Baita ere, esku-hartzean ikasleek erakutsitako inplikazioa ikasleentzat oso onuragarria izan dela uste duela adierazten du, hau bete aurretik ikasleek zituzten gaitasunak hobetzeaz gain, inoiz landu ez dituzten beste asko garatzen hastea lortu dutelako. Irakasleak aipatzen duen moduan, “Lehendabiziko aldiz, dantza estilo desberdinak ezagutu dituzte. Adibidez, gorputz perkusioa edo aerobic kooperatiboa. Hau guztia jarrera aktiboarekin eginda, motibazioa handituz eta garatuta ez dituzten gaitasun desberdinak garatuz.”

5.3. Lan honen autorearen emaitzak

Nire kasuan, irakasleak betetako galdetegi berdina bete dut. Irakasleak ikasleek izandako eboluzioa nolakoa izan den aipatzeko gai da, ikasleak nondik datozen daki eta. Nire kasuan aldiz, ikasleak zelan ikusi ditudan aipatu dezaket, eskuratutako emaitzak aipatuz.

Hasteko, hasierako saioarekin alderatuta, amaieran ikasleak erritmoa askoz hobeto eramateko eta haien artean koordinatzeko gai izan direla ikusi dut. Hasieran ez ziren gai erritmoa jarraitzeko, ezta haien artean koordinatzeko ere. Oso trebeak ziren mugimendu eta desplazamenduetan, baina hankak eta besoak aldi berean koordinatzean ez. Pixkanaka

tresnak eta baliabideak eman dizkiet jardueren bidez, eta hauek oso baliagarriak izan zaizkiela ikusi dut. Hori dela eta, arlo fisiko-motorrean aldaketa nabaria egon dela egiaztatu dezaket.

Honekin lotuta, arlo emozionalean aldaketa egon dela uste dut. Hasierako saioetan, ikasleen jarrera ez da amaierako saioetan bezalakoa izan. Ikasleak lotsarekin hasi ziren, mugimendu errezak eginez, eta ahalik eta dantza pausu gutxien emanaz. Aurrera egin ahala, lotsa alaitasun bihurtu da, eta aske sentitu dira nahi izan dutena egiteko. Gainera, dantza eta musikaren inguruan arituko zirela ikustean, hasierako erantzuna ez zen ona izan. Jarrera hau guztiz aldatu da amaieran.

Gainera, denen artean kooperazioan lan egiteko gai izan dira. Hasi aurretik, talde kohesioa nahiko handia zen arren, talde txikietan elkartzen ziren normalean. Saioen garapenean, ikasle guztiak haien artean lan egiteko gai izan dira, errespetua mantenduz, eta haien artean desberdintasunak egotean, komunikazioaren bidez konponduz.

Bestetik, hasierako eta amaierako sorkuntzen artean aldaketa handia ikusi dut. Erronken zaitasuna gora egin duen heinean, ikasleen ekoizpenen konplexutasuna ere. Hori dela eta, arlo kognitiboa garatu dutela ikusi da. Izan ere, eskainitako baliabideak bereganatu dituzte, eta hauek nola erabili ikasi dute. Gainera, une bakoitzean zeuden eskakizunetara modu egokian moldatu dira.

6. Ondorioak

Segidan, dantza eta musikaren onurak ezagutzeko lanean oinarritutako hainbat ondorio aipatuko dira. Ondorioak sortzeko hainbat gauza hartu dira kontuan: hasieran ezarritako helburuak, behaketa prozesua, aurrera eramandako esku-hartzea, eta guzti hauetan oinarritutako emaitzak.

Lehenik eta behin, helburuak aztertuko dira. Aurretik aipatu den moduan, Gradu Amaierako Lan honen helburu orokorra, musikak eta dantzak ikasleen garapen integralean ekarpenik egiten duen aztertzea da, eskolako errealitatera egokitutako musikarekin eta dantzarekin lotutako proposamen didaktiko baten bidez, ikasleek zein irakasleek gai hauek lantzearen abantailak eta onurak ezagu ditzaten. Hau aztertuta, helburua bete dela esan daiteke. Honetarako, behaketa prozesuaren ostean eskolan ikusitako gabeziak kontuan hartu dira, ikasleen beharretara egokitutako sekuentzia didaktiko bat sortuz. Hori dela eta, ikasleek zein irakasleek ikasleengan esku-hartzeak garapen integralean eragin dituen onurak era garbian antzeman eta ezagutu dituzte.

Lan honetan, oso garrantzitsua izan da esku-hartzea baino alde aurretiko lanketa. 1. helburu espezifikoa dagokionez, esku-hartzea planifikatzen hasi aurretik egindako informazio bilketa eta behaketa prozesuak funtsezkoak izan dira ondoren pausu guztiak betetzen joateko.

Normalean, dantza eta musikaren gaiari oso garrantzia txikia ematen zaio eskoletan. Hau abiapuntua izanda, gaiak eskolan jasotzen duen trataera ikertu da, eta gabeziak identifikatzean, horiei erantzun bat ematen saiatu da.

2. helburu espezifikoak betetzeko, esku-hartzea planifikatzeko abiapuntua zein den ezagutu, eta bertatik abiatuta, saioak aurrera eraman dira. Ikasleen garapen integralean egindako ekarpena oso garrantzitsua izan da. Hori dela eta, arreta hainbat esparru desberdinetan jarri da. Gainera, musikarekin eta dantzarekin lotutako kontzeptu desberdinak lantzen saiatu da, ikasleek beren bizitzan erabilgarriak eta garrantzitsuak direla ikus dezaten. Azkenik, ikasleek esku-hartzeari zelako erantzuna eman dioten ikusi da. Gainera, galdetegi desberdinak bete dira, musikak eta dantzak ikasleengan sortu ahal dituen onurak ezagutzeko (3. helburu espezifikoak). Gero, horiek ezagututa, eskolan gai honen tendentzia aldatzea, etorkizunean gaia gehiago lantzeko tresnak luzatuz helburutzat hartu da.

Helburuak alde batera utziz, behaketari erreparatuko zaio. Nahiz eta kasu askotan musika motrizitatea lantzeko tresna erabilgarri bezala ikusten den (García, 2014), errealitatean, Gorputz Hezkuntzako saioetan, musika eta dantzari ez zaiola garrantzirik ematen ikusi da. Gainera, hauek erabiltzen direnean, erabilera ez da egokia, bigarren plano bateko tresna bezala geratzen baitira.

Hau dela eta, irakasleak gai honetan funtsezko papera betetzen duela ondorioztatu da. Hasteko, irakasleak gorputz adierazpena irakasgai honetan landu beharreko bloke bat izateaz gain, gorputz adierazpenak ikasleen ongizate orokorra lortzeko eta hobetzeko ahalmena duela jakin beharko luke (Rodríguez, 2008). Gainera, kasu askotan, ikasleen garapena irakasleen menpe egoten dela, eta proposatzen dituzten jardueren eta irakaskuntza motaren araberakoa izaten da. Honen harira, gai honen trataeran arazo larri bat ikusi zuen López de la Callek (2009) egindako ikerketa batean, non irakasleen % 93,8ak musikaren inguruko jakintzarik ez zutela egiaztatzean. Honen aurrean, ikasleek aukera gutxi dituzte gorputz adierazpena lantzeko, eta hau ikastetxeak hobetu beharreko arazoa da.

Aipatutako emaitza guztiak kontuan izanda, esku-hartzea baliogarria izan zaiela ziurta dezaket. Gehienek, hasieran espero ez zuten arren, musika eta dantza oso onuragarriak direla hainbat esparrutan ikusi dute. Izan ere, pixkanaka, trebetasun asko bereganatu dituzten heinean, arlo desberdinak garatu dituzte. Hortaz, dantza eta musikaren trataerak Gorputz Hezkuntzako irakasgaietan, ikasleen garapen integralean ekarpen handia egiten duela ikusi dut.

Arlo fisiko-motorra aztertuta, emaitza oso positiboak jaso dira. Musika eta dantzaren bidez, ikasleek hainbat gaitasun eta trebetasun garatu dituzte, hala nola, erritmoa edo espazio eta denboraren egituraketa. Dantzak gaitasun motorrak era desberdinetan lantzeko aukera ematen du (Piedrahita, 2008). Adibidez, erritmoa desplazamenduen abiadura aldatuz landu

daiteke, eta espazioaren eta denboraren egituraketa, inguruneko espazioekin zein pertsona edo objektuekin mugimenduak koordinatuz. Gainera, ikasleentzat koordinazioaren lanketa oso garrantzitsua izan da. Koordinazioa garatuta izateak, ikasle batek mugimendu kontzientek eta sinkronizatuak egitea baldintzatzen du (Alcantara, 2019). Aurrera eramandako esku-hartzean oinarrituta, musika eta dantzaren bidez koordinazioaren garapenean ekarpen nabaria egin daiteke.

Arlo emozionalari dagokionez, dantzaz baliatuta, emozioen trataeran eta kudeaketan ekarpen handia egin da. Saioekin aurrera egin ahala, ikasleak lanketa emozional handia egin dutela konturatu dira. Normalean zaila izaten den arren, ikasle askok une bakoitzean sentitu dutena adierazteko gai izan dira. Hau, giro apropos batean, dantza ekoizpenen bidez, ikasleak emozio desberdinak adierazteko aske sentitu direlako. Honetarako, funtsezkoa izan da jarduera askotan protagonista izan den irudimenaren presentzia. Izan ere, De Rueda et al.-en esanetan (2013), dantza eta inprobisazioaren bidez, ikasleak beren ideiak eta emozioak epaituak sentitu gabe adierazteko gai dira.

Honekin arlo soziala oso lotuta dago. Lehenengo momentutik, ikasleek gainontzeko ikasleekin lan egiteari garrantzia handia eman diote, eta, emozionalki aurrera pausu handiak egin dituzten heinean, kideen arteko harremana eta lana oso ona bilakatu da. Gainera, Álvarez-ek et al.-ek (2022) dantzaren bidez pertsonen arteko harremanak sustatzen direla baieztatu dute.

Bestalde, harremanak sustatzeaz gain, ikasleen artean mantendu den harremana oso positiboa izan da. Dantza eta musika, errespetua, konfiantza eta talde lana bezalako edukiak garatzeko egokia da. Honen harira, mota honetako esku hartze baten bidez, ikasleek, talde barruan aurrerapauso handiak ematen dituzte, besteekin lan egiten dutenez eta denak taldean protagonistak sentitzen direnez, bakoitzaren parte hartzea handiagoa delako (Álvarez et al., 2022). Azkenik, dantza, pertsonen arteko mugak hausteko tresna baliogarria dela ikusi da. Elkarren artean konfiantza handiagoa sortu den heinean, ikasleak, adibidez, kontaktu fisikoa mantentzeko gai izan dira.

Bestetik, ikasleek ez dute, beste arloetan bezala, arlo kognitiboan erreparatu. Haienentzat, arlo kognitiboa dantza eta musikaren esku-hartzearekin konektatzea nahiko zaila izan da. Dena den, ikasleek alderdi kognitiboa garatu dutela era garbian ikusi da. Lehen aipatutako irudimena, arlo honen barne kokatu daiteke. Gilek adierazten duen moduan (2018), irudimena prozesu bat da, non egin beharreko ekoizpena, antolaketa prozesu konplexu baten bidez aurrera eramaten den. Planteatutako erronkak erabilgarriak izan dira honetarako, ikasleek sortutako hasierako ekoizpen sinpleak amaieran konplexuak eta aberatsak bihurtu dituzte eta.

Irudimenaz aparte, arreta dantza eta musikaren bidez garatu dute ikasleek. Carolina et al.-ek aztertu duten moduan (2014), dantzaren bidez arreta lantzea ideia ona da, estilo honetako dinamiken bidez lortzen diren emaitzak onak baitira. Kasu honetan ere, aldaketa nabaria sumatu da ikasleen arreta aztertuta. Adi egoteaz gain, amaieran eginbeharreko guztiak lehenengo azalpenean ulertu dituzte. Izan ere, aurretik arreta mantendu dutenez, erlazioak sortu dituzte eduki zahar eta berrien artean.

Garapen integrala alde batera utziz, aurretik jasotako emaitzek hobekuntza eta esku-hartzearen erabilgarritasuna adierazten dute. Ikasleentzat esku-hartzea oso onuragarria izan dela ikusita, ikastetxetik dantza eta musikari denbora gehiago eskaini beharko lioketela argi dago. Askotan, Gorputz Hezkuntza soilik kirolekin erlazionatuta dagoela uste da, eta hori dela ikasleei gustatzen zaien gauza bakarra. Honen aurrean, Learretak eta Sierrak (2003), Gorputz Hezkuntzako saioetan musikaren erabilera ikasleentzat motibagarria izan daitekeela adierazi dute. Gainera, musika gure bizitzetan egunero agertzen den zerbait dela kontuan izanda, hezkuntza-sistemak musikari buruz duen ikuspegia aldatu beharko luke (Grande, 2020), hezkuntza-curriculumeko eremu desberdinetan garrantzia handiagoa emanez.

Esku hartzean oinarrituta, azkenengo ondorio batzuk proposatzen dira. Hasteko, ikasleek saioetan zehar planteatutako jardueraz gozatu dute. Kasu gehienetan, dinamika berriak izan dira haientzat, eta hori dela eta, oso erakargarria iruditu zaie proposamena. Esku-hartzearen bidez, ikasleek bizikidetzarako funtsezkoa diren hainbat balore eskuratzeaz gain, haientzat berriak diren hainbat eduki ezagutu dituzte. Erronka berrien aurrean, jarduera aberatsak, askotarikoak eta antolakuntza zehatza jarraitu behar ez dutenak planifikatzea komeni da, ikaskuntza-prozesu berriak eragiteko (Nielsen et al., 2020). Horregatik, eta ikasleengandik jasoko zen erantzuna ez ezagutzeagatik, aurrera eramanez diren jarduerak gehienak irekiak izan dira. Honekin, modu errezean, gelako une zehatz bakoitzera egokitzea lortu da, espero zen baino emaitza hobeak lortuz.

Aurretik aipatu bezala, lanaren ondorioek eta emaitzek adierazten duten moduan, ikasleentzat mota honetako jarduerak egiten jarraitzea onuragarria da. Ikasle guztiengan, hobekuntza nahiko handia nabaritu da hainbat arlo eta esparru desberdinetan. Hori dela eta, hobekuntza prozesu honi jarraipena ematea garrantzitsua izango litzateke, esku-hartze proposamen honekin hasitakoa, ikasleengan finkatzeko. Nik proposatutakoa denbora epe labur baterako izan dela kontuan hartuta, eta nire hasierako helburua musika eta dantzari buruz identifikatu ditudan hainbat arazori erantzuna bilatzea izan dela, eskolarentzat aldaketa prozesu hau egiten jarraitzea zaila dela uste dut. Gaur egun, ez dago mota honetako jarduerak egiteko planifikaziorik ezta ideiarik ikastolan. Honi irakasleek normalean jarduera ezezagunekin aritu beharrean, ezagutzen dituzten jarduerak betetzea nahiago dutela gehitzen

zaio. Horrek irakasleen esperientzia eta gaiaren inguruko baliabide eta ikasketa faltarekin erlazio zuzena du. Dena den, eskola ausarta izan beharko litzatekeela uste dut, proposamen berritzaileen aldeko apustua eginez, eta joera tradizionalak modu batez alde batera utziz. Dena den, eta nahiz eta lortutako emaitzak aldekoak izan, ikasle guztiek ez dutela proiektu berritzaileen aurrean berdin erantzuten, eta ikasleen arazo eta zalantzen aurrean funtsezkoa dela irakaslearen lana jakitea garrantzitsua da (Nielsen et al., 2020).

Aurreko guztia laburbilduz, proposatutako esku-hartzeak helburu orokorra bete duela esan daiteke, eskolan identifikatutako gabeziei, adibidez, ikasleen partetik gaiarekiko interes ezari eta irakasleen formakuntza eskasari, erantzuna emanez. Honetaz gain, saioak ikasleentzat onuragarriak izan direla ikusi da. Dena den, gaiaren trataera hobetze aldera, ikastolan aldatu eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu dira, hala nola, gaiari eskaintzen zaion denbora edo ikastolan barruan duen garrantzia. Bestetik, irakaslearen paperean murgilduta, ikasturtean zehar, irakasle moduan dantza eta musikarekin lotutako jardura desberdinak proposatzea garrantzitsua dela ikusi da. Ikasleek mota honetako dinamikekin gero eta erlazio gehiago izanez, gero eta onura gehiago jasoko dituzte arlo psikomotorrean, kognitiboan, emozionalean eta sozialean.

7. Mugak eta Hobekuntza Proposamenak

Nahiz eta nire Gradu Amaierako Lanaren helburua bete egin den; izan dira zenbait muga nire lana nahiko nukeen bezala ez izatea eragin dutenak. Gainera, amaieran hobekuntza alderdi batzuk identifikatu dira, hurrengorako kontuan hartu daitezkeenak.

Hasteko, Gradu Amaierako Lana graduko hirugarren praktikaldiarekin bat joan dela kontuan hartu behar da. Honek suposatzen du, amaierako lana betetzen joateko, praktikaldiko erritmoa jarraitu behar izan dela. Hori dela eta, ez dira lanak behar izan dituen denborak jarraitu. Alde batetik, behaketa prozesua aste batekoa izan da gutxi gorabehera. Behaketa esku-hartzea sortzeko abiapuntu nagusia izan dela kontuan izanda, aste bateko tartea ez dela nahikoa izan uste dut. Orokorrean gabezia dezente identifikatu, eta amaieran hauei erantzuna bilatu zaien arren, baliteke beste gauza batzuetaz ez ohartzea, eta behatu ez diren arazo edo hutsuneak, konpondu gabe jarraitzea.

Beste aldetik, esku-hartzea irakasleak eta nik adostutako saio kopurura egokitu behar izan da. Nire ustez, esku-hartzearen iraupena nahiko motza izan da. Honek ikasleen partetik jaso duen erantzuna ikusita eta zer nolako emaitzak lortu diren aztertuta, komenigarria izango litzateke saio gehiago txertatzea. Saio gehiagorekin, garapen integralean ekarpen handiagoa egitea lortuko litzateke. Gainera, amaierako saioetan ikasleen motibazioa altuago izan dela nabaritu da, eta hori aprobetxatuz, emaitza hobeak lortzeko aukera zegoen.

Honen harira, eta azkenengo ekoizpenari begira, ikasleek denbora gutxi izan dutela praktikatzeko nabaritu da. Azkenengo erronka ez da espero zen bezala atera, eta hau denbora faltagatik izan da. Honekin jarraituz, ikasleentzat honek arazoa suposatu du, esku-hartzean zehar izan duten tendentzia gorakorra, amaieran erlaxatu baita. Izan ere, haiek espero zituzten koreografiak ez dituzte betetzea lortu.

Bestalde, ikasleek gaiari buruz zuten ideia eskasa oztopo gisa ikusi dut. Hau, ikastolak gaiaren inguruan egindako lanketa ezaren arazoa da. Hala ere, muga hau, ikasteko, eta nire burua etorkizun hurbilean irakasle moduan kokatzeko aukera bezala ikusi dut, ikasleek garatuta ez zituzten gaitasun eta trebetasunetatik abiatuta, aurrera egiteko eta pixkanaka hobetzeko jolasak planteatzen saiatu bainaiz. Dena den, egindako aurrerapenen iraunkortasuna txikia izango dela uste dut. Ezinbestekoa izango litzateke gai honi bere lekua eta garrantzia eskaintzea; are gehiago, lortutako emaitzei erreparatuz. Ikastolan gai honek garrantzirik ez duela ikusita, ez dut uste horrela izango denik, nahiz eta abantailak eta onurak ikusi diren.

Aipatutako gabeziak eta oztopoak gaindituz, egindako lanarekin oso pozik nago. Aukeratutako gaia nahiko zaila izan dela uste dut, gehienbat gaien aditua ez naizelako. Hala eta guztiz ere, hasieran bete nahi ziren helburuak bete direla uste dut, nire ikasketa-prozesua aberastuz. Gainera, graduan zehar ikasitakoa praktikan jarri da, eta aurrera eramandakoa etorkizunean erabilgarria izango zaidala esan dezaket. Azkenik, irakasle gisa modu egokian aritu naizela aipatu daiteke.

8. Bibliografía

- Abellán, L. . (2021). Beneficios de la danza académica en el desarrollo psicomotriz en Educación Infantil. *Pulso. Revista De educación*, (44), 39–49. <https://doi.org/10.58265/pulso.4650>
- Albán, J. P., & Vela, K. M. (2021). *El método Montessori en el Desarrollo Integral de los niños/as de 4 a 5 años* [Lizentziatura tesia, Universidad Central del Ecuador]. <http://www.dspace.uce.edu.ec/bitstream/25000/23725/1/UCE-FIL-ALBAN%20JESSICA-VELA%20KATHERINE.pdf>
- Alcantara, W. (2019). *Coordinación motora en los niños de 0 a 12 años de edad*. <http://repositorio.untumbes.edu.pe/bitstream/handle/20.500.12874/1644/TRABAJO%20ACADEMICO%20-%20ALCANTARA%20PERALTA.pdf?sequence=3&isAllowed=y>
- Álvarez, M. E., Méndez, C. H., & Milena, A. (2022). La danza folklórica una estrategia pedagógica para mejorar relaciones interpersonales en niños de básica primaria. *Revista Temario Científico*, 2(2), 9-24. <https://doi.org/10.47212/rtcAlinin.2.2.2>
- Aragó, A., Balaguer, P. & Zorrilla, L. (2016). Como trabajar las habilidades socioemocionales a través de la danza y su importancia en la escuela. *Quaderns Digitals: Revista de Nuevas Tecnologías y Sciedad*, 82, 155-172.
- Arteaga, M., Ibáñez, M. C. & Párraga, J. A. (2019). La danza como enseñanza de régimen especial en Andalucía. *AusArt*, 7(1). <https://doi.org/10.1387/ausart.20747>
- Astobiza, A. M. (2016). Filosofía de la danza: Cuerpo y expresión simbólica. *Daimon Revista Internacional de Filosofía*, 295-305. <https://doi.org/10.6018/daimon/268861>
- Belmonte, E. (2022). *Música como elemento fundamental a integrar en las clases de Educación Física* [Grado Amaierako Lana, Universidad de Valladolid]. <https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/57716/TFG-L3370.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Benítez, M. A., Diaz, V. M. & Romina, N. (2017). Beneficios del entrenamiento musical en el desarrollo infantil: una revisión sistemática. *Revista internacional de educación musical*, (5), 61-69. <https://doi.org/10.12967/RIEM-2017-5-p061-0>
- Bermell, M., González, J. & Pastor, J. (2018). Programa de educación emocional a través de la música en educación primaria. *Edetania*, (54), 199-222.
- Botella, A. M., Canet, R. & Fosati, A. (2017). *Desarrollo emocional y creativo en educación infantil mediante las artes visuales y la música*.

<https://roderic.uv.es/bitstream/handle/10550/67112/6427076.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Allison, K., Cameron, K. L., Cheong, J. L. Y., Fini, N. A. McGinley, J. L., & Spittle, A. J. (2020). Dance PREEMIE, a Dance PaRticipation intervention for Extremely prEterm children with Motor Impairment at prEschool age: an Australian feasibility trial protocol. *BMJ open*, 10(1), 1-9. <http://dx.doi.org/10.1136/bmjopen-2019-034256>

Carolina, M., Lasso, A., & Ruíz, I. (2019). *La danza movimiento terapia como estrategia para fortalecer los procesos de atención y coordinación motora mediante la danza El Congo Grande en niños de tercero de primaria de la institución educativa Alfredo Bonilla Montaña* [Lizentziatura tesia, Fundación Universitaria Católica Lume Gentium]. [https://repository.unicatolica.edu.co/bitstream/handle/20.500.12237/1648/DANZA MOVIMIENTO TERAPIA COMO ESTRATEGIA FORTALECER PROCESOS ATENCION COORDINACION MOTORA MEDIANTE.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://repository.unicatolica.edu.co/bitstream/handle/20.500.12237/1648/DANZA_MOVIMIENTO_TERAPIA_COMO ESTRATEGIA FORTALECER PROCESOS ATENCION COORDINACION MOTORA MEDIANTE.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Chavero, A., González, J. A. & Martín, N. (2018). *La danza y la Expresión corporal como asignatura dentro del currículum de educación* [Gradu Amaierako Lana, Universidad de Sevilla]. <https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/80614/CHAVERO%20ACEDO%20AINOA%20danza%20y%20expresion.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Conesa, E., & Sánchez, S. A. (2017). La expresión corporal y danza en la educación física de secundaria y bachillerato. *Cuadernos de psicología del deporte*, 17(2), 111-120.

Cordova, Y. N. (2020). *Beneficios de la música en los niños del 2º grado de primaria en la IE 14132, Las Lomas, Piura, 2020* [Gradu Amaierako Lana, Universidad Católica Los Ángeles Chimbote]. <http://repositorio.uladech.edu.pe/bitstream/handle/20.500.13032/26174/ATENCION MUSICA Y SOCIALIZACION CORDOVA VELASQUEZ YORDY NOEL.pdf?sequence=3&isAllowed=y>

Cremades, A., Gutiérrez, R., & Perea, B. (2011). La interdisciplinariedad de la música en la etapa de educación primaria. *Espacio y Tiempo, Revista de Ciencias Humanas*, 25, 151-161.

Cremades, R. (2017). *Didáctica de la educación musical en primaria*. Ediciones Paraninfo, SA.

- Custodio, N., & Cano-Campos, M. (2017). Efectos de la música sobre las funciones cognitivas. *Revista de Neuro-psiquiatría*, 80(1), 60-69. <http://dx.doi.org/10.20453/rnp.v80i1.3060>
- Dallal, A. (2020). *Los elementos de la danza*. UNAM, Dirección General de Publicaciones y Fomento Editorial.
- De Rueda, B., & López, C. E. (2013). Música y programa de danza creativa como herramienta expresión de emociones. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (24), 141-148. <https://doi.org/10.47197/retos.v0i24.34545>
- Domínguez, C. L., & Castillo, E. (2017). Relación entre la danza libre-creativa y autoestima en la etapa de educación primaria. *Cuadernos de Psicología del Deporte*, 17(1), 73-80.
- Elliott, D. J., & Silverman, M. (2015). A Response to Commentaries on Music Matters: A Philosophy of Music Education. *Action, Criticism & Theory for Music Education*, 14(3), 105-130.
- Euskaltzaindia. (2023). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 2023ko maiatzaren 17an berreskuratua, https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&task=bilaket&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=11215 -tik.
- García, M. T. (2014). *La importancia de la música para el desarrollo integral en la etapa de Infantil* [Grado Amaierako Lana, Universidad de Cadiz]. <https://rodin.uca.es/bitstream/handle/10498/16696/16696.pdf?sequence=6&isAllowed=y>
- Gonzales, L. Y. (2017). *Influencia de la música clásica en la comprensión lectora en niños y niñas del quinto grado de la IEP* [Lizentziatura tesia, Universidad Nacional del Altiplano]. <https://renati.sunedu.gob.pe/handle/sunedu/3223213>
- González, A. (2012). *Beneficios y aportaciones de la música en la escuela* [Grado Amaierako Lana, UNIR]. <https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/193/TFG%20Gonzalez%20Fernandez.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Grande, I. (2020). *Desarrollo de las competencias emocionales a través de la unión de música y danza en la Educación Secundaria* [Master Amaierako Lana, Universidad de Zaragoza]. <https://zagan.unizar.es/record/100845/files/TAZ-TFM-2020-684.pdf>
- Iruñ, M. (2021). *Musika hezkuntza: Eratzeko eta eraldatzeko* [Grado Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea].

https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/55066/GrAL_MaitanelruinLuluaga.pdf?sequence=2&isAllowed=y

Jarillo, R. (2014). *La música en el desarrollo integral del niño* [Lizentziatura tesia, UNIR]. <file:///C:/Users/34688/Downloads/jarillo%20diaz.pdf>

Jauset, J. Á. (2016). Música, movimiento y neuroplasticidad. *Eufonía: didáctica de la música*. (67), 19-24. https://jordijauset.es/wp-content/uploads/2016/07/Musica_movimiento-y-neuroplasticidad_JA-Jauset.pdf

Llanga, E. F., & Insuasti, J. P. (2019ko ekainaren 10a). *La influencia de la música en el aprendizaje*. Revista: Atlante. Cuadernos de Educación y Desarrollo. <https://www.eumed.net/rev/atlante/2019/06/musica-aprendizaje.html>

Larrea, I. (2018). *Musika ikasleen arteko harremanak hobetzeko tresna* [Gradu Amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/31774/GrAL_Larrea_Etxegoien_Izar.pdf?sequence=1&isAllowed=y

Latham, A. (2017). *Diccionario enciclopédico de la música*. Fondo de Cultura económica.

Learreta, B., & Sierra, M. Á. (2003). La música como recurso didáctico en Educación Física. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (6), 27-37. <https://doi.org/10.47197/retos.v0i6.35080>

López de la Calle, M. D. L. (2009). La formación de los maestros de Educación Infantil para la comprensión de la Música y su uso didáctico en Galicia. *REIFOP*, 12(1), 107-120.

López, N., López, A. M. & Vicente, G. (2020). La danza en Educación Física: análisis de los currículos autonómicos españoles de Educación Primaria. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (38), 517-522. <https://doi.org/10.47197/retos.v38i38.77413>

López, V. M., Manrique, J. C., Monjas, R. & Pérez, D. (2016). Los retos de la Educación Física en el Siglo XXI. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, deporte y recreación*, (29), 182-187. <https://doi.org/10.47197/retos.v0i29.42552>

Meschini, F., & Payri, B. (2016). Un estudio experimental sobre la influencia de la música en la coreografía: movimiento y espacio. *Epistemus*, 4(1), 13-52. <https://doi.org/10.21932/epistemus.4.3027.1>

Moreano, L. (2018). *La danza en el desarrollo motriz en niños de 4 años del nivel inicial* [Gradu Amaierako Lana, Universidad Nacional de Tumbes].

<http://repositorio.untumbes.edu.pe/bitstream/handle/20.500.12874/717/MOREANO%20QUISPE%2c%20LISSET%20ETHEL....pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Nielsen, A., Romance, Á. R., & Chinchilla, J. L. (2020). Los ambientes de aprendizaje como metodología activa promotora de la actividad física en Educación Infantil: un estudio de caso. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (37), 498-504. <https://doi.org/10.47197/retos.v37i37.71026>

Núñez, J., & Quiñonez, E. (2020). *Música y danza tradicional como estrategia pedagógica para el fortalecimiento de la convivencia escolar* [Doktorego-tesia, Universidad de la Costa].

<https://repositorio.cuc.edu.co/bitstream/handle/11323/6125/M%c3%basica%20Y%20Danza%20Tradicional%20Como%20Estrategia%20Pedag%c3%b3gica%20Para%20El%20Fortalecimiento%20De%20La%20Convivencia%20Escolar%20.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Oriol, N. (2017). La música en las enseñanzas de régimen general en España y su evolución en el siglo XX y comienzos del XXI. *Revista electrónica de LEEME*, (16), 01-33.

Orozco, G., & Gil, K. R. (2018). Beneficios cognitivos cerebrales de la práctica de la danza. *Ciencia & Futuro*, 8(3), 142-160.

Quintiliano, A. (2016). *Sobre la música*. RBA.

Real Decreto 157/2022 [con fuerza de ley] . Por el que se establecen la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Primaria. 3 de marzo de 2022. D.O. No. 52. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-3296>

Real Decreto 1513/2006 [con fuerza de ley]. Por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la Educación primaria. 7 de diciembre de 2006. D.O. No. 293. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2006-21409>

Renio, H. (2015). *Musikaren erabilera eskoletan harremanak kudeatzeko tresna gisa* [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/17677/GAL_HenarReino.pdf?sequence=4&isAllowed=y

Rodríguez, V. (2008). El mejoramiento de la salud a través de la expresión corporal: un enfoque holístico. *Reflexiones*, 87(1), 127-137.

Sigcha, E. M. (2016). *La expresión musical como herramienta para el desarrollo integral en la educación infantil* [Lizentziatura tesia, Universidad Técnica de Cotopaxi]. <http://repositorio.utc.edu.ec/bitstream/27000/3809/1/T-UTC-0141.pdf>

- Valencia Mendoza, G. (2015). El legado de Wdgar Willems a la educación musical de hoy. Herencia de Edgar Willems, pedagogo del siglo XX, a la pedagogía musical del siglo XXI. *Ricercare*, (4), 46-52. <https://doi.org/10.17230/ricercare.2015.4.5>
- Vásquez, J. A., (2008). *La danza como medio potenciador del desarrollo motriz del niño en su proceso de formación deportiva en las escuelas de fútbol* [Gradu Amaierako Lana, Universidad de Antioquia]. <http://viref.udea.edu.co/contenido/pdf/151-ladanza.pdf>
- Velecela, M. A. (2020). La educación musical en la formación integral de los niños. *Revista de investigación y pedagogía del arte*, (7), 01-10.
- Zarate, K. (2019). *Musika, edukiak barneratzeko tresna* [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/41376/GRAL_KatalinZarateArrieta.pdf?sequence=4&isAllowed=y

9. Eranskinak

9.1. Hasierako Galdetegia

Adina: _____

Neska: _____ Mutila: _____

Dantza eta musika erlazionatuta daudela uste duzu? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Zein arlotan uste duzu musika eta dantza eragina dutela? (Hautatu uste dituzun guztiak):

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Arlo fisiko-motorra | <input type="checkbox"/> Arlo emozionala |
| <input type="checkbox"/> Arlo soziala | <input type="checkbox"/> Arlo kognitiboa |

Zertarako erabiltzen duzu musika? (Hautatu nahi dituzun guztiak):

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Disfrutatzekeo | <input type="checkbox"/> Ikasteko |
| <input type="checkbox"/> Triste nagoenean alaitzeko | <input type="checkbox"/> Kirola egiteko - Mugitzeko |
| <input type="checkbox"/> Pentsatzeko - Hausnartzeko | <input type="checkbox"/> Besteekin harremanetan jartzeko |
| <input type="checkbox"/> Abesteko | <input type="checkbox"/> Arazoak ahazteko |
| <input type="checkbox"/> Lagunekin giro egokian egoteko | <input type="checkbox"/> Beste bat |

Zertarako erabiltzen duzu dantza? (Hautatu nahi dituzun guztiak):

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Disfrutatzen | <input type="checkbox"/> Ikasteko |
| <input type="checkbox"/> Triste nagoenean alaitzeko | <input type="checkbox"/> Kirola egiteko - Mugitzeko |
| <input type="checkbox"/> Pentsatzeko Hausnartzeko | <input type="checkbox"/> Besteekin harremanetan jartzeko |
| <input type="checkbox"/> Koordinazioa lantzeko | <input type="checkbox"/> Arazoak ahazteko |
| <input type="checkbox"/> Lagunekin ondo pasatzeko | <input type="checkbox"/> Beste bat |

Zertarako uste duzu direla baliogarriak musika eta dantza zure bizitzan? (Hautatu nahi dituzun guztiak):

- | | |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> Akademikoki hobeto aritzeko | <input type="checkbox"/> Gehiago ikasteko |
| <input type="checkbox"/> Klasean arreta mantentzeko | <input type="checkbox"/> Besteekin harremanetan jartzeko |
| <input type="checkbox"/> Ezagutzen ez ditudan pertsonekin harremana izateko | <input type="checkbox"/> Sentitzen ditudan emozioak ezagutzeko |
| <input type="checkbox"/> Emozioak adierazteko | <input type="checkbox"/> Besteen emozioak ezagutzeko - ulertzeko |
| <input type="checkbox"/> Kirola egiteko - mugitzeko | <input type="checkbox"/> Egunero arazorik gabe aritzeko behar ditudan mugimenduak betetzeko |
| <input type="checkbox"/> Trebetasun motorrak garatzeko | <input type="checkbox"/> Beste bat |

Dantza eta musikari buruz zer espero duzu ikastea? (Aipatu 3 gauza):

- 1
- 2
- 3

Hurrengo 6 saioak baliogarriak izango zaizkizula uste duzu? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Zer uste duzu ikasiko duzula hurrengo 6 saioetan? (Aipatu 3 gauza):

- 1
- 2
- 3

9.2. Erdiko Galdetegia

Adina: _____

Neska: _____ Mutila: _____

Orain, ze neurritan uste duzu dantza eta musika erlazionatuta daudela? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Orain, zein arlotan uste duzu musika eta dantza eragina dutela? (Hautatu uste dituzun guztiak):

- Arlo fisiko-motorra Arlo emozionala
 Arlo soziala Arlo kognitiboa

Ze neurritan uste duzu arlo fisiko-motorra garatu duzula? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Ze neurritan uste duzu arlo emozionala garatu duzula? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Ze neurritan uste duzu arlo soziala garatu duzula? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Ze neurritan uste duzu arlo kognitiboa garatu duzula? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Aipatu orain arte landutako 3 eduki:

1

2

3

Orain arte egindako saioak baliogarriak izan zaizkizula uste duzu? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Zer espero duzu geratzen diren saioez? (Aipatu 3 gauza):

1

2

3

9.3. Amaierako Galdetegia

Adina: _____

Neska: _____ Mutila: _____

Dantza eta musika erlazionatuta daudela uste duzu? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Zein arlotan uste duzu musika eta dantza eragina dutela? (Hautatu uste dituzun guztiak):

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Arlo fisiko-motorra | <input type="checkbox"/> Arlo emozionala |
| <input type="checkbox"/> Arlo soziala | <input type="checkbox"/> Arlo kognitiboa |

Zertarako erabiltzen duzu musika? (Hautatu nahi dituzun guztiak):

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Disfrutatzeke | <input type="checkbox"/> Ikasteko |
| <input type="checkbox"/> Triste nagoenean alaitzeko | <input type="checkbox"/> Kirola egiteko - Mugitzeko |
| <input type="checkbox"/> Pentsatzeko - Hausnartzeko | <input type="checkbox"/> Besteekin harremanetan jartzeko |
| <input type="checkbox"/> Abesteko | <input type="checkbox"/> Arazoak ahazteko |
| <input type="checkbox"/> Lagunekin giro egokian egoteko | <input type="checkbox"/> Beste bat |

Zertarako erabiltzen duzu dantza? (Hautatu nahi dituzun guztiak):

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Disfrutatzeke | <input type="checkbox"/> Ikasteko |
| <input type="checkbox"/> Triste nagoenean alaitzeko | <input type="checkbox"/> Kirola egiteko - Mugitzeko |
| <input type="checkbox"/> Pentsatzeko - Hausnartzeko | <input type="checkbox"/> Besteekin harremanetan jartzeko |
| <input type="checkbox"/> Koordinazioa lantzeko | <input type="checkbox"/> Arazoak ahazteko |

- Lagunekin ondo pasatzeko Beste bat

Zertarako uste duzu direla baliogarriak musika eta dantza zure bizitzan? (Hautatu nahi dituzun guztiak):

- Akademikoki hobeto aritzeko Gehiago ikasteko
- Klasean arreta mantentzeko Besteekin harremanetan jartzeko
- Ezagutzen ez ditudan pertsonekin harremana izateko Sentitzen ditudan emozioak ezagutzeko
- Emozioak adierazteko Besteen emozioak ezagutzeko - ulertzeko
- Kirola egiteko - mugitzeko Egunero arazorik gabe aritzeko behar ditudan mugimenduak betetzeko
- Trebetasun motorrak garatzeko Beste bat

Dantza eta musikari buruz ikasitako 3 eduki? (Aipatu 3 gauza):

- 1
- 2
- 3

Aurreko 6 saioak baliogarriak izan zaizkizu? (1 gutxi – 5 asko):

1	2	3	4	5

Zer da gehien gustatu zaizuna? (Aipatu 2 gauza):

- 1
- 2

9.4. Irakasleak Betetako Galdetegiaren Transkripzioa

ARTE HEZKUNTZA

1.1 Zenbait korrante, estilo eta generotako kultura- eta arte adierazpenen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, ingurune analogikoetan zein digitaletan, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia zentzu kritikoarekin txertatuz.

Lehendabiziko aldiz, dantza estilo desberdinak ezagutu dituzte. Adibidez, gorputz perkusioa edo aerobic kooperatiboa. Hau guztia jarrera aktiboarekin eginda, motibazioa handituz eta garatuta ez dituzten gaitasun desberdinak garatuz.

3.1 Gorputzaren eta arte adierazpeneko zenbait tresnaren adierazpen- eta komunikazio aukera batzuk erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, jakin-mina, interesa eta hobetzeko grina erakutsita.

Dantzaren bidez arte komunikazioa sustatu zen koreografia desberdinak eginda, talde txikietan gainontzeko ikasleei erakutsiz.

3.2 Oinarrizko zenbait adierazpen proposamen sortzea, esperimentazio sistematikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsiz eta besteen gaitasunak baloratu eta onartuz.

Ikasleen jarrera beti egokia izan da gainontzeko ikaskideekin, haien erraztasun eta zailtasunak onartuz.

4.1 Kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan laguntzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik hitzartutako helburuak beteko dituen azken emaitza lortzeko lan eginez.

Erakusketa teknika desberdinak erabiliz (adituen dinamika, adibidez) modu gidatuan ikasi dute ikasleek, koreografia izango zen azken emaitza bat lortzeko.

4.2 Sorkuntza-prozesuan aktiboki parte hartzea, zenbait arte hizkuntzatako oinarrizko elementuak erabiliz eta interesa eta errespetua erakutsiz.

Errespetua guztiaren ginetik egon da beti, ikasle guztiek modu aktiboan parte hartuz.

4.3 Sormen-esperientzia partekatzea, oinarrizko zenbait komunikazio-estrategia erabiliz, prozesuaz zein lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratu, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.

Taldeko erronkak bete dituztenean, denek parte hartu dute erronka sortze prozesuan. Gainera, denen iritziak eta ideiak kontuan hartu dituzte, une oro errespetua mantenduz eta haien artean komunikazioa bermatuz.

HEZIKETA FISIKOA

1.1 Jarduera fisikoa aisialdirako alternatiba osasungarri gisa antzematea, bizimodu aktiboak maila fisikoan eta mentalean dituen ondorio onuragarriak antzemanaz eta jarduera fisikorako eta esfortzurako jarrera positiboa hartuz.

Ikasleek jarrera positiboa eduki dute une oro, jarduera fisikoa aisialdirako modu osasungarri baten moduan onartuz, denbora atsegina edukita eta haien eguneroko bizitzan modu hobekoan moldatzeko trebetasunak eta gaitasunak garatuz.

1.4 Egoera motorretako dimentsio afektiboen garrantzia baloratzea, norberaren emozioak kudeatzen hasiz eta besteenak identifikatuz.

Ikasleek haien egoera emozionalak kudeatu dituzte, bai eta besteenak identifikatu, haien arteko gatazkak saihesteko.

4.1 Kooperazio-egoeren eskaerei erantzuteko ekintzak kateatzea, oinarritzko mugimendurako trebetasunak hautatuz eta taldearekiko konpromisoarekin eta elkartasunarekin konbinatuz.

Ikasleak talde bakoitzean egonda konpromisoa eduki dute, jarrera egokia mantenduta eta planifikatutako kooperazio egoeren eskaera desberdinei erantzuteko ekintza desberdinak kateatuz

4.2 Harrera, inklusio, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak garatzea, gatazka indibidualak eta kolektiboak elkarrizketa bidez kudeatuz eta estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean konpromiso aktiboa erakutsiz.

Ikasleen artean sortutako gatazkak (koreografia desberdinetan pausu bat edo bestea egin, adibidez) hitzen bitartez konpondu dituzte, jarrera diskriminatzaileak eta indarkeria mota desberdinak saihestuta.

7.1 Sentimenduak, emozioak edo ideiak transmititzen dituzten komunikazio-jardunetako banakako eta taldeko mugimendu konbinazioak edo koreografiak erreproduzitzea, gorputzaren adierazpen- eta erritmo baliabideak erabiliz.

Hainbat koreografia mota desberdin sortu dituztenez, gorputzaren inplikazioa eskatzen zuten hainbat baliabide modu egokian erabili dituzte, gorputz adierazpena eta erritmo mota desberdinak konbinatuz adibidez.

7.2 Banakako edo taldeko proiektu motorrak egitea, lortutako emaitzak aztertzeko estrategiak erabiliz.

Ikasleek dena modu egokian bete dute eta landutakoa etorkizunean erabilgarria izango zaie. Hau lortzeko, proiektu motor desberdinak bete dituzte eta aurrera eramandako proiektuak aztertu eta baloratu dituzte.